

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

SORMENA ETA ESKOLAREN

DOKTRINAMENDUA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Elozegi Mujika, Anartz.

ZUZENDARIA: Cortabarría Cortazar, Lorea.

2020

Laburpena

Sormenaren kontzeptuaren bilakaera historikoak aldaketa handiak eta teoria asko bildu ditu, Grezia garaiko jenioetatik, pertsona guztiak duten gaitasun bat izateraino. Sormena pertsona orok duen gaitasun bat da eta kolektiboki lantzen denean eraginkorragoa eta aberatsagoa izaten da, hala ere, sormen kolektiboaren gaineko lanketak baztertuak izaten diren ikuspuntu hegemonikoagatik. Nahiz eta denek ez duten sormen maila berdina eta denak ez diren sormen handiko pertsonak, ez da inor jaiotzen sormen handiko pertsona izaten. Gaitasun hau garatzeko eta indartzeko aukera dago, baina horretarako landu egin behar da. Hala ere, sistema dominatzaileari ez zaio komeni gaitasun hau garatea norbanakoek, izan ere, honek ekartzen duena sistema bera zalantzan jartzeko aukera da eta pertsonen artean harremantzeko modu berriak asmatzea da. Beraz, burgesiak dituen armak erabiliko ditu garapen hau oztopatzeko, horien artean eskola. Eskola, ez da instituzio neutro bat haurren beharrei erantzuteko sortu zena. Bere jaiotzetik klase dominatzaileek erabiltzen duten tresna bat da, momentuan dituzten beharrei erantzuten dienak. Horregatik, eskolak ere bilakaera bat izan du sortu zenetik, beti ere produkzio harremanekin lotura izan duena. Hau dela eta, asko entzunagatik ere, eskoletan ez da bultzatzen sormenaren benetako garapen baterako lanketarik. Are gehiago, neurri eta baliabide desberdinekin honen garapena oztopatzen da. Hau aztertzerako orduan, eskolak historikoki izan duen bilakaera eta jarduna, gaur egungo eskolaren inguruko pedagogo eta hezkuntza arloko adituen lanak eta irakasle ezberdinei egindako galdetegi bat hartu dira kontuan.

Resumen

La evolución histórica del concepto de la creatividad ha reunido grandes cambios y muchas teorías, desde los genios de la antigua Grecia hasta la capacidad que tienen todas las personas. La creatividad es una capacidad que tienen todas las personas y cuando se trabaja colectivamente es más efectiva y rica, pero los trabajos sobre la creatividad colectiva han sido rechazados desde el punto de vista hegemónico. Aunque no todos tienen el mismo nivel de creatividad y no todas son personas creativas, no es nadie una persona creativa desde el nacimiento. Existe la posibilidad de desarrollar y potenciar esta competencia, pero para ello es necesario trabajarla. Sin embargo, al sistema dominante no le conviene que los individuos desarrollen esta capacidad, ya que lo que ello supone es la posibilidad de cuestionar el propio sistema y de idear nuevas formas de relación entre las personas. Por tanto, la burguesía utilizará las armas que posee para frenar este desarrollo, entre ellas la escuela. La escuela no es una institución neutra creada para responder a las

necesidades de los niños. Es una herramienta que utiliza desde su nacimiento la clase dominante y que responde a sus necesidades del momento. Por ello, a pesar de escuchar mucho, en las escuelas no se fomenta el trabajo para un desarrollo real de la creatividad. Es más, con diferentes medidas y recursos se dificulta su desarrollo. Para su análisis se ha tenido en cuenta la evolución y funcionamiento histórico de la escuela, el trabajo de especialistas pedagógicos y educativos en torno a la escuela actual y un cuestionario realizado a diferentes profesores.

Hitz gakoak: Sormena | Kritikotasuna | Eskola | Eskolaren bilakaera

Palabras clave: Creatividad | Criticidad | Escuela | Evolución de la escuela

Aurkibidea

Sarrera	4
Marko teorikoa.....	5
Metodoa	18
Emaitzak	18
<i>Sormenaren papera kapitalismoan</i>	18
<i>Hezkuntza formalaren bilakaera</i>	20
<i>Sormenaren lanketa eskoletan</i>	27
Ondorioak	35
Mugak eta hobekuntza proposamenak	37
Bibliografia	38
Eranskinak	41
1. Eranskina: Estatu burgesaren azalpena	41
2. eranskina: irakasleen erantzunak	42
3. Eranskina: irakasleen erantzunen datuak.....	46
4. Eranskina: Francesco Tonucciren marrazkiak	48

Sarrera

Hezkuntza komunitatearen inguruan asko entzuten den gai bat da sormenarena. Geroz eta indar handiagoa hartzen ari da jendartean eta hau lantzeko metodologia eta dinamika desberdinen proposamenak aspalditik daude mahai gainean, baina benetan lantzen al da eskoletan sormena? Jendarteari komeni zaio norbanakoek sormena lantzea? Zerekin dago lotua sormena? Sormenaren inguruan pentsatzen hasten naizenean galdera ugari etortzen zaizkit burura, eta asko ez dakizkit erantzuten. Nire inguruak lotura asko dauka hezkuntzarekin eta sormena askotan entzuten dudak hitz bat da, baina lan hau egiten hasi arte ez nekien bere definizio bat ematen. Askotan entzun izan dut sormena oso ona dela haurrentzat, edota ikasleen sormenaren garapena bultzatu behar dela, baino benetan ez nukeen jakingo hau nola indartu.

Honetaz gain ere, gaur egun proposamen eta unitate didaktiko asko aurki daitezke liburu, artikulatu edota sarean ikasleekin sormena lantze aldera, baina benetan eskoletan aurrera eman daitezke? Nahikoa da hiruhilekoan behin lantzearekin? Egunerokoan landu beharreko gauza bat da? Elkarrizketa askotan ateratzen diren galderak dira hauek. Honekin lotura duen eta asko hitz egiten den gai bat, irakasle askoren kexuak dira ikasturtean duten denboraren eta eman behar duten edukiarekin harremana dutenak, edota klaseetan ikasle gehiegi daudela eta ez dagoela aukerarik gustuko metodologia aurrera eramateko esaten dutenak. Arrazoi hauek eragina al dute irakasleak klasean egin nahi duena aurrera eramateko aukera ez izateko, edota maila altuagoan dauden organoak ezartzen dituzten kontrolak dute eragina?

Honetaz gain, askotan ikus daiteke era sormenaren gaineko iritzi negatiboak, gaitasun hau barregarri uzten duen iritzi publikoa. Honen adibide da, haur batek tontakeri bat esatean edota normala ez den eta logikoa ez den gauza bat esaten duenean hurrengo esanak entzutea: “haur honek ze sormena duen txorakeri hori pentsatzeko”, “Sormen horrekin ez da urrutira helduko”. Orduan, ona da sormena garatzea edo bizitza errealetik aldentzen digu eta etorkizun baterako kaltegarria izan daiteke?

Lan honekin, nire dudak argitu nahi nituen. Benetan interesatzen zaidan gai bat delako eta ikusi dudalako ez dakidala ia ezer honen inguruan. Beraz, galdera hauek argitzen saiatuko naiz hurrengo lerroetan.

Marko teorikoa

Lan honetan, hezkuntzaren historia eta bertan sormenaren lanketa nola eman denaren azterketa egiterako orduan, marxismoa erabili da tresna bezala. Izan ere, diziplina filosofiko, ekonomiko eta historikoa biltzen dituen sozialismo zientifikoaren teoria da. Historian zehar egondako jendarteak aztertzen ditu harreman ekonomikoa oinarrian jarriz, materialismo dialektikoaz eta materialismo historikoaz baliatuta (Gite ipes, 2017).

Argi ikusteko zergatik oinarritzen den lana teoria honetan hezkuntzaren eta jendartearen historia aztertzerako orduan, marxismoaren azalpen labur bat emango da. Momentu honetan hezkuntzaren gaia abordatzeko erreferentzia marko solidoena eskaintzeaz (Apple, 1986) gain, aurrerago egingo den analisia guztiz ulertu eta koherentzia izan dezan beharrezkoa delako.

Mundua ulertu eta aztertzeko historian zehar bi modu nagusitu dira: idealista eta materialista. Idealista (ez zientifikoa), gauzen azalpen bat ematerako orduan, espirituetan eta gauza ez materialetan oinarritzen da. Materialista (zientifikoa) aldiz, gertatutako gauza eta esperientzietan oinarritzen da gauza materialak kontuan hartuz (Politzer, 2018). Ez dago esan beharrik marxismoak metodo materialista erabiltzen duela.

Jarraian materialismo dialektiko eta historikoaren azalpena egingo da. Lehena, mugimenduan lege orokorren, zientzia eta izadiaren, jendartearen eta pentsamenduaren eboluzioa da (Engels, 2014). Ez da modu uniforme eta lineal batean garatzen, baizik eta kontradikzioen mugimendu batean. Eta mugimendu hau, kuantitatibotik kualitatiborako aldaketan eta ukapenaren ukapenean oinarritzen da (Heinrich, 2018). Bigarrena, single esanda, historia zehar materialismo dialektikoaren aplikazioa izango litzake (Politzer, 2018).

“Materialismo historikoak, hau da, giza zientzia guztien teoria zientifikoak” (Elhuyar, 1993,1172), defenditzen du, azken instantzian produkzio harremanak determinatzen dutela historia, eta produkzio harreman hauek direla gizarte oren oinarria, honen gainean osatzen delarik gainegitura sozial guztia (Mandel, 2013). Hau da, gizakiak bizitzeko beharrezkoa dituen baliabideak produzitu behar ditu eta produkzio harreman hauek osatzen dute azken instantzian egitura ekonomikoa, jendarte oren oinarria dena (Engels, Marx, 1975).

Produkzio harremanak kontuan hartuta, lau antolakuntza desberdin bereizten dira historian zehar. Lehenik, komunismo primitiboa, bertan ez dago klase

bereizketarik, lan banaketa sexual bat existitzen da baina jabetza pribaturik ez dago, jabetza tribuarena da (Engels, 2017). Bigarrenik, esklabutza, hemen ematen da lehengo klase antagonikoen sorrera, esklaboa eta gizaki librearen arteko bereizketa. Hirugarrenik, feudalismoa, garai honetan nagusitzen den klase bereizketa jauntxo eta plebeioen artekoa da. Eta azkenik, kapitalismoa (lan honetarako garrantzitsuena dena), gaur egungo jendartea, burgesiaren eta langileriaren bereizketan oinarritua dagoena (Saenz del castillo, 2016) (Engels, Marx, 2014).

Esklabutzan sartu zenetik historiaren gorpila, ezagutu izan diren zibilizazio guztiak izan dira klase gizarteak. Honek zer esan nahi du, esplotazioan oinarritu direla, hau da, dominatutako klaseak (esklaboak, plebeioak eta langileriak) berak bizitzeko behar duen mantenuaz gain dominatzailearena ere produzitzen duela (Heinrich, 2018). Esplotazio honek forma desberdinak izan ditu eta garrantzitsua da aztertzea nola funtzionatzen duen klase dominazioarekin batera. Lan honetarako garrantzitsuena kapitalismoak nola funtzionatzen duen ulertzea da, beste bi jendartetatik bereizten da bi arrazoi nagusirengatik. Batetik, kapitalismoaren aurreko jendarteak, esplotazioa dependentzia eta botere harreman batean oinarritzen zirelako. Dominatzaileak bere esklaboarekiko botere zuzena zuen. Kapitalismoan aldiz, langileak kontratu bat ezartzen du nagusiarekin eta lege burgesaren barruan "librea" da. Bestetik, kapitalismoaren aurreko jendartetan, klase zapalduaren esplotazioak, klase zapaltzailearen kontsumorako balio zuelako. Oso gutxitan erabiltzen zen irabazia esplotazioa handitzeko. Kapitalismoan aldiz, azken hau da ohikoena, ganantzia ez da zuzenean burgesa ondo bizitzeko, baizik eta berriz inbertitzeko, horrela oraindik eta ganantzia handiago lortzeko. Berehalako helburu ez da beharrak asetzea, kapitalaren balorizazioa baizik (Heinrich, 2018).

Historian zehar egon diren produkzio eredu desberdinak eta hauen gainean eraikitako jendarteak ikusita, hauek bizirauteko, hau da, klase dominazioa mantentzeko, klase dominatzaileak dituen tresnak aztertuko dira jarraian.

Hasteko azpimarratu beharra dago, edozein jendarte antolaketa forma konplexu bat dela, non, bi maila existitzen diren, ekonomikoa (produkzio harremanek osatua) oinarria edo egitura izango litzatekeena eta juridiko politiko ideologikoa (estatuak, pentsaerak eta abarrek osatua) gainegitura bezala ezagutua. Eraikin batekin alderatuko bagenu, oinarria ekonomikoa izango litzake eta honen gainean eraikiko zitekeen gainegitura osoa, oinarria hau mantentze aldera (Ormazabal, 2016) (Harnecker, 1979).

Gainegitura aztertzerako orduan ez da eskainiko honek behar duen denbora eta espazioa zehatz azaltzeko, lan honen helburua ez delako hori. Beraz, baliteke gauza batzuk gainera azaltzea edo aipatu gabe uztea.

Jendartearen gainegituraz ari garenean, lehen esan bezala, maila politiko juridiko ekonomikoaz hitz egiten dugu, non, azken instantzian produkzio harremanek determinatzen duten. Gainegitura honetan klase dominatzaileak eduki duen arma nagusienetako bat, Estatuak izan da. Honen helburu nagusia, produkzio bitartekoen (esplotazioa harremanak) erreproduzioa litzateke, hau da, sistema dominatzaileak aurrera jarraitzea eta klase dominatuaren mendekotasuna erreproduzitzea ezarritako logikari erantzunez (Saenz del castillo, 2016) (Althusser, 2014).

Gaur egungo jendearengan ohikoa da pentsatzea Estatuak beharrezkoa dela, baina ez da betidanik dagoen antolakuntza forma bat, Estatu gabe urte askotan zehar bizi izan ziren pertsonak, beraz, ez da beharrezkoa den zerbait orain sinestarazten diguten bezala (Mandel, 2013). Estatuan agerpena transformazio bikoitz baten produktua izan zen: batetik, soberakin sozial iraunkor baten agerpena, non, aukera eman zion sektore konkretu bati bere biziraupena bermatzeko lana egin behar ez izatea, eta bestetik, eraldaketa sozial eta politiko batena, non, komunitateko kide askori baztertu zitzaizen ordu-arte denak betetzen zituzten funtzio politikotatik (Mandel, 2013).

Esan bezala Estatuak ez da betidanik existitu, garapen ekonomikoak puntu konkretu batean iristean bilakatu zen beharrezkoa. Konkretuki, klase antagonikoen bereizketa handiagotzen ari zenean, instituzio baten falta nabari zen, zeinak, itxuraz klase guztien gainera jardungo zuen eta klasetan banatutako jendarteak betiketuko zuen, horrela aukera ematen dominatzaileari esplotazioa urteetan zehar mantentzeko. (Engels, 2017).

Beraz, ondorioztatu daiteke, orokorrean Estatuak ez dela neutroa eta botere ekonomikoak dutenen interesetara jotzen duela (Saenz del castillo, 2016) (Harnecker, 1979). Honekin lotuta, klase dominazioa finkatzeko eta mantentzeko, beharrezkoa da klase dominatua manipulatu izatea, bestela ez lukeelako onartuko jendarteko gutxiengoak soberakin soziala bereganatzea. Horregatik, Estatuak funtzio errepresiboak gain ideologikoak ere betetzen du eta horretarako Estatuak aparatu desberdinak baliatzen ditu. Bi multzo handitan bereiz ditzakegu: lehenik, Estatuaren aparatu errepresiboak, zeinak, nagusiki errepresioa lantzen duten klase dominazioa mantentzeko, adibidez, polizia, ejertzitza, legeak eta abar; bigarrenik, Estatuaren aparatu ideologikoak, gehienbat lan ideologikoak arduratzen direnak, multzo honetan sartuko lirateke hezkuntza, erlijioa, kultura, komunikabideak eta abar (Ormazabal,

2016) (Althusser, 2014). Azken honekin lotua aipatu beharra dago, antzinako erregimenean aparatu ideologiko nagusia erlijioa zela eta jendarte burgesean aldiz, hezkuntza formala (Alonso, 1980).

Estatuaren azalpenarekin amaitzeko, azpimarratu behar da, askotan aurkitzen den arazo bat Estatuaren kontzepzio instrumentala dela, ezabatu egiten baitira harreman kapitalista eta aurre-kapitalistetako diferentzia kualitatiboak. Bakarrik klase ezberdinetako jendarteaz azaleratzen dute, baina estatua aztertzerako orduan kontuan hartu beharreko aldagai inportanteenak, klaseak beraien artean harremantzako duten forma espezifikoak eta hau nola erreproduzitzen duten dira. Hortaz, historian zehar egon diren Estatu guztiak nahiz eta logika berari erantzun, ez dira berdinak eta bakoitza bere oinarritzko produkzio harremanetatik abiatuta ulertu behar dugu (Heinrich, 2018). Beraz, nagusiki hiru estatu forma bereiz ditzakegu produkzio harremanetatik abiatuz. Lehenik, esklabutzako Estatu zaharra, batez ere esklaboak kontrolatzeaz eta hauek ez intsumitzeaz arduratzen zen. Bigarrenik, Estatu feudala, nekazariak lotuak edukitzeko erabilia. Eta azkenik, Estatu burgesa edo modernoa (1. eranskina, azalpen zehatzagoa, gaur egungo estatuaren inguruan), soldatapeko lana ustiatzea duena helburu (Ormazabal, 2016) (Engels, 2017).

Hala ere, esku artean dagoen lanerako interesgarriena dena, hezkuntzak eta eskolak jokatzeko duten papera estatuaren baitan ulertzea da, izan ere, hezkuntza klase dominatzailearen arma esentzial bat dela ikusi da, zeinak, klase dominatuak manipulatu eta produkzio harremanen erreprodukzioa bermatzen duen (Amenabarro, 2016) (Ponce, 2005). Hala ere, aurrerago aztertuko ditugu jendarte desberdinetan, batez ere kapitalismoan, existitu diren hezkuntza formalak izan dituen forma eta funtzio desberdinak.

Materialismo historikoaren azalpen labur honen ondoren eta historia eta jendarteaz aztertzerako orduan hartzen duen garrantzia ulertuta, sormena aztertzearen txanda da. Hasiere batean, sormenaren kontzeptuak eta honen gaineko ikerketak zer bilakaera eduki duen historian zehar azalduko da gainera, gauza garrantzitsuenak bakarrik aipatuz teoria, paradigma eta ikuspuntu asko egon direlako eta lan honen helburua ez delako hauek guztiak aztertzea.

Sormenaren kontzeptuaren agerpena historian lehen aldiz Grezian kokatzen da, nahiz eta ez izan termino honen izenean. Bertako poetak izan ziren sormenezko pertsonarekin antza handiena zuten lehen norbanakoak. Garai hauetan poesia ez zen erakusten eta jainkoak emandako talentua bezala hartzen zen (Monreal, 2000).

Pixkanaka poeta hauek jenio kontzeptuarekin lotzen hasi ziren eta hauen sormena eromenarekin lotzera iritsi zen Aristotelesen garaian (Ferrandiz, Lopez, Prieto, 2003).

Bertatik Erromatar inperioaren garaira egiten da salto, bertan sormenaren kontzeptua jainkoan sorkuntzarekin lotua izan zen, eta norbanakoen eskulturak hartu zuten sormenaren adierazpenaren lekukoa (Monreal, 2000).

Ondoren, errenazimendu garai arte ez zen orokorrean oso esanguratsua izan honen bilakaera, bertan gorakada handia izan zuen. Garai honetan artistekin lotzen da sormena, hala ere, dagoeneko ez da hitz egiten inspirazioa jainkotiarraz baizik eta ahalmen sortzaileari ezartzen zaio obra hauen ekoizpenaren arrazoia (Monreal, 2000). Hala ere, sormenaren bilakaera ez zen kasualitatea huts bat izan, aldaketa hau aldaketa sozialarekin batera etorri zen (Ferrandiz et al. 2003).

Aurrera jarraituz, nahiz eta orokorrean ez zen aldaketa handiegirik egon sormenari dagokionez 1500-1700 urteen artean, etapa honetan zehar hasi zen zientzia eta pentsamendu zientifikoa ikerketarako tresna bezala erabiltzen eta honek zibilizazioaren aldaketa bat ekarri zuen. Honekin batera, sormenaren kontzeptua pixkanaka aldenduz joan zen ikuspegi irrazionaletik (Ferrandiz et al. 2003).

Etap hau eta gero XVIII. Mendean Frantzian hartzen du indar handiena, bertan bi tendentzia nagusi azaltzen dira sentsualismoa eta positibismoa, non materialismoa garatuko duten jenioaren gaineko pentsamenduetan. Lehenak, jenioa norbanakoen bizitzaren printzipio orokorrean erregulatzen dute, haien ustez denak izan daitezke jenioak eta gaitasun hau potentziatu daiteke. Bigarrenak aldiz, jenio pertsonen printzipio orokorretatik haratago dagola defendatzen dute, haientzat espeziala da eta edertasuna erreproduzitzeko ahalmena du. Mende honetan sormenaren bilakaeran kontuan hartu beharreko bi ideia gailentzera heltzen dira. Batetik, bereizketa bat dagoela jenio, talentu eta originaltasun terminoetan onartzen da. Bestetik, jenio ez dela naturaz gaindikoa ulertzen da, nahiz eta ezohikoa izan (Monreal, 2000).

XIX. mende bukaeran lehenengo aldiz sormen sozialaren kontzeptuaren agerpena ematen da mugimendu libertarioetan, orokorrean sormenaren eboluzio historikoan aipatzen ez den eta dagoeneko ahaztua dagoen etapa bat da. Hala ere, garrantzitsua da hemen aipatzea sormenaren kontzeptuari beste ikuspegi bat ematen diolako. Mugimendu hauen barruan, sormenak dimentsio indibidualista, eksklusibista eta elitistak atzean uzten ditu, eta egunerokotasunaren mailara jaisten da (García, 2016).

Sormena prozesu kolektibo eta anonimo bezala ulertzen dute, inteligentzia kolektiboaren espresio bezala. Denen artean erabakita eta adostuta, elkar

harremantzako forma berriak erabiltzen dituzte, ez diote forma berri horien proposamena pertsona bakarrari egozten. Sormen herrikoi hau, manifestazio folkloriko batetik haratago, erresistentzia forma eta borroka kultural bezala hartzen da. Gainera zentzu iraultzaile bat hartzen du. Izan ere, iraganaren eta orainaldiaren transformazioa bat adierazten du, non, elkarrekin bizitzeko perspektiba berriak osatzen diren, kapazitatea dutenak etorkizun bat eraikitzeko inolako zapalkuntzarik gabekoa (García, 2016).

XX. mende erdialdean sormen kolektiboan ideia guztiak desagertu egiten dira. Ondoren, XXI. mendean berriro azaltzen da sareen gorakadarekin eta autore batzuk honen inguruan idazten hasten dira (García, 2016).

XX. mende hasieran sormena pixkanaka sustatzen eta askatzen doa jendartean. Teknika aldaketa asko ematen dira garai horretan eta honekin sormenezko pertsonaren gaitasunak gutxi batzuk izatetik asko izatera pasatzen dira (Durán et al. 2013). Hala ere, sormenaren bilakaeran urte bat aipatzekotan, 1950. urtea izango litzake. Izan ere, urte honetan Guilfordek, Ameriketako psikologia elkarteko presidente izendatu zutenean, egin zuen hitzartzea sormenaren ingurukoa izan zen eta hortik aurrera eman zen gai honekiko ikerketaren aldaketa, ordu-arte oso ikerketa gutxi zeunden honen inguruan, hemendik aurrera geroz eta gehiago hasi ziren egiten denbora motzean. Nahiz eta diziplina desberdinetan landuko den sormena, batez ere psikologian hartzen du indar handia (Ferrandiz et al. 2003) (García, 2016) (Monreal, 2000).

Sormenaren inguruko ikerketei dagokionez, ildo desberdinetakoak egon dira historian zehar, lehengo gerturapenak garaiko sormenezko pertsona bezala ezagutzen ziren pertsonen biografiak eta ezaugarriak aztertzean oinarritzen ziren, kontuan hartu gabe haiek bizi zuten testuingurua (Vecina, 2006). Gero, 1950 arte ematen diren ikerketa nagusietan aipatzekoak dira jenioen auto-ebaluaketa, bertan beraien sormenaren jatorria azaltzen saiatzen ziren edo psikoanalisiaren hipotesiak eta planteamendu empirikoak besteak beste (Monreal, 2000). Esan daiteke, ikuspegi psikometrikoak indarra hartu zutela, hauek sormen handiko pertsonak kontsideratzen diren norbanakoetan sormena neurtzeko balio duten formak dira (Ferrandiz et al. 2003). Are gehiago, ildo psikometrikoan lanketak lagundu zuen sormenaren ikerketa zientifikoak hastea eta garatzea (Monreal, 2000).

Esan bezala, 1950tik aurrera paradigma eta teoriak ugaritu egiten dira. Nagusiki bi planteamendu bereiz daitezke, diferentziala eta esperimentalak. Ikerketen orientazioei dagokienez, asko aurki daitezke nagusienak: psikobiologikoa, jokaerazkoa,

asoziazionista, ingurunekoa, kognitiboa, konputazionala, biografikoa (Monreal, 2000). Hala ere, esanguratsuenetako eta determinanteenetako bat sormenean ingurumen sozial eta kulturalak duen eraginarena azaltzen duen ikuspegia da (Vecina, 2006).

Hauek dira sormenaren inguruan orokorrean aipatzen diren ildoak. Hala eta guztiz ere, badaude honekiko kritikoak diren korronteak ere. Hauen iritziz, 1950tik aurrera ikerketa eta esperimentu psikologikoak indarra hartzen dutenean, honen gaineko hegemonia bat garatzen joaten dira. Bertan, sormena indibidualismoarekin lotzen dute, zuzenean kapitalismoak eta botere politikoak bere nukleoan jartzen duten indibidualismoari erantzunez (García, 2016).

Psikologia hegemoniko hau interes ekonomiko eta politikoen zerbitzuetara dago (gorago aipatutako gainegituraren parte da), eta ez bakarrik kontrol mekanismo bezala, bere gainean erortzen da ere kontsumismoa legitimatu eta zabaltzea, eta egozentrismoa jendarteko esentzia antropologiko bezala azaleratzea (García, 2016).

Ian Parkerrek (2007, 65) esan zuen: “toda investigación es a favor o en contra del poder. El problema con gran parte de la psicología radica en que suele contribuir al mantenimiento deliberado del orden establecido bien sea a través de la reproducción de los relaciones de poder existentes bien sea a través de la defensa ultranza de la neutralidad de las explicaciones científicas. Por eso en última instancia, la psicología ofrece un apoyo tácito al poder”.

Historian zehar sormenaren kontzeptuak eta bere gaineko ikerketak izan duten bilakaera modu orokorrean ikusi ondoren, gaur egun ze forma hartzen duen eta sormenezko pertsonak dituzten ezaugarriak azalduko dira. Hasteko aipatu ikuspegi desberdinak egon direla historian zehar gorago ikusi bezala, beraz definizioak ere ugariak dira (Vecina, 2006). Gaur gaurkoz ez da aurkitzen emaitza bateraturik sormena definitzeko, sormenaren ikerketara dedikatzen diren adituek diote pertsonen fenomeno konplexuenetako bat dela eta zientifikoki aztertu daitekeela, pertsonen jokaera bat den heinean, hala ere, denek ez dute bat egiten hau aztertzeko formekin (Monreal, 2000). Lan honetan ez dira definizio eta ikuspegi guztiak azalduko, lanarekin koherentzia dutenak eta interesgarrienak direnak aipatuko dira, psikologia hegemonikotik haratago.

Hasteko garrantzitsua da bereiztea sormena sormenezko pertsonarekin edo sormenezko produktu batekin. Historian zehar gehienbat, nahiz eta gaur egun batzuk horrela pentsatu ere, uste zuten sormena pertsonak gutxi batzuk jaiotzetik zuten ezaugarri bat zela eta ez zuela mundu guztiak. Baina joera hau okerra da, pertsona guztiek duten gaitasun bat da. Hala ere, batzuk besteak baino sormen handiagoa dute

(Valero, 2019) (Monreal, 2000) (Vecina, 2006). Askotan ezaugarri hau sormenezko pertsona edo produktuekin nahasten da, izan ere, nahiz eta sormena gaitasun bezala pertsona guztiek eduki, denak ez dira kontsideratuak sormenezko pertsonak. Honetarako, sortzen duen produktuak berritasuna eta balorea eduki behar ditu (Durán et al. 2013). Zientzialari gehienek aipatzen dute sormen handiko pertsona kontsideratzeko sortzen dituen ideiak berriak, egokiak, kalitate handikoak eta sozialki onartuak izan behar direla, are gehiago, produktu bat potentzialki sormenezkoa izan daiteke, baina komunitateak hala onartu arte ez da bilakatzen (Monreal, 2000). Hala ere, kontuan eduki behar da sormenezko pertsonak beraien diziplinan direla horrela ikusiak eta ez guztietan (Alvarez, 2010). Bereizketa hau egin ondoren, azpimarratzekoa da lan honetan sormenaren inguruan jardungo dela eta ez sormenezko pertsonen inguruan.

Dagoeneko aipatu da sormena pertsona guztiek duten gaitasun bat dela, hala ere ezaugarri desberdinak ditu. Medinaren (2005) iritziz, trebetasun eta iaiotasun mentalak modu egokian erabiltzean datza, tresna kontzeptualak sortu eta garatzen dituenak originaltasuna eta garapena, berritzea, inspirazioa eta intuizioa erabiliz. Beraz, adimenetik sortutako produktu bat bezala ulertuta sormena, logikoa da pentsatzea pertsona guztiek dutela sormen potentzial bat eta bakoitzaren berezko gaitasunak eta bizi duen egoeraren arabera potentzial hori aldatzen joango dela (Medina, 2005) (Alvarez, 2010).

Beraz esan daiteke, sormena jendearen gaitasun inportantenetako eta produktiboenetako bat dela (Vecina, 2006) eta denen eskura dagoela, ez da mugatzen ezaugarri batzuetara bakarrik eta ez da gaitasun finko bat (Robinson, 2009). Azkenean, pertsona baten sortzeko gaitasunari deritzo, eta horretarako ezaugarri desberdinak lantzea komeni da, ohiko arazoei erantzun ez ohiko bat ematea, erantzun original bat (Valero, 2019).

Menchenek (2012, 249) sormenaren inguruan zihoen “transgredir lo conocido, traspasar los límites, romper las reglas, y luchar contra la rutina, la apatía y el aburrimiento. Es un acto de rebeldía, que consiste en buscar signos visibles en espacios invisibles y en buscar palabra e ideas donde parece que ya no las hay. Ser creativo es como una danza de transformación donde algo estaba en el reino de la imaginación pasa a la realidad”.

Orain arte esandakoarekin argi geratzen da, pertsona guztiek duten eta potentziatu daitekeen gaitasun bat izateaz gain, normaltasunaren eta logika hegemonikoaren aurka doan jarrera bat dela. Sormenaren eraginez norbanakoa

sistemak markatutako bide logikotik ateratzen da eta harremantzeko modu berriak bilatzen ditu sistema zalantzan jarriz (Cortes, Jimenez, 2016). Honetaz gain, eta hasieran esandakoarekin lotuz, materialismo historikoarekin:

“El ser humano es un ser creativo por su propia naturaleza social, pues a lo largo de nuestra existencia sobre la tierra fue necesario que todas las generaciones anteriores produjeran respuestas sociales a problemas y obstáculos de todo tipo, y deberían enfrentarse a múltiples realidades desde donde surgieron los productos sociales humanizados, instituciones y procesos sociales” (De Melo, Yeilich, 2016,60).

Sormenak kasu honetan bizitzeko forma aldaketa bat planteatzera behartu dago, produkzio bitartekoak aldatu direlako (materialismo historikoaren teoria). Aldaketan eragina du, garapenerako eta eboluziorako (Vecina, 2006). Pertsonak historian zehar garatu duten gaitasuna bat bezala hartu daiteke, haien iraupena bermatzeko (De Melo, Yeilich, 2016). Perspektiba sozial batetik ikusita, gaitasun kolektibo bezala hartzen da, pertsonen garapenarekin lotua dagoena. Kondizioak egon ezkerro jendearen garapenerako, jendartea halabeharrez sormenezkoa bihurtzen da (Diz, Leiva, 2016). Sormenak inguruaren aldaketan eragina duen bezala alderantziz ere gertatzen da, dena ez da genetikoa, norbanakoak bere historian zehar sortu duena eta beregan eragin duen guztia kontuan hartu behar da. Beraz, ez da subjektuan ezaugarri simple bat bere barruan dagoena, subjektuan portaera ingurumenari lotua dagoenez sormenean ere eragina du inguruneak edo testuinguru sozial politiko kulturalak (Monreal, 2000).

Are gehiago, sormena hiru elementuren elkarrekintzan sortzen da: psikologikoa, kulturala eta soziala. Psikologiko bezala bakarrik kontsideratzean ez da sormenaren osotasuna hartzen, psikologikoa bezain kultural eta soziala da. Hau da, ez da pertsonen buru barruan sortzen, baizik eta pertsona baten pentsamendu eta testuinguru sozial kulturalaren elkarrekintzan (Csikszentmihalyi, 1998).

Bestalde, kontuan hartu behar da, sormen sozialak ohikoa dena prozesatzeari erresistentzia egiten diola. Pentsamendu pedagogiko kritiko honetan, sormenezko pentsamendua lan eta botere banaketa egoki baterako formulak pentsatzean jarduten du, besteak beste, behartsuenen boterea handitzea, komertzio justuaren garapena, oldarkortasun gabeko komunikazio bat sortzea pixkanaka hizkuntza diskriminatzaile eta sexista gaindituko lukeena, hezkuntza eta pedagogia jendartearen garapenean zentratzea (Diz, Leiva, 2016).

Orokorrean, sormen kontzeptuaren kanpo ezaugarri nagusiak ikusita, ez dela pertsona konkretu batzuen gaitasuna bakarrik, ingurune edo testuinguruak eragina duela eta kolektiboa denean eraginkorragoa dela, orain umeengan, lanak hala eskatzen duelako, nola azaleratzen den eta nola potentziatu daitekeen azalduko da. Honek ez du esan nahi sormen sozial edo kolektiboarekin kontrajartzen denik. Izan ere, pertsona bakoitzaren sormen maila desberdina da eta indibidualki potentziatu daiteke, baino kolektiboki landu edo praktikatu ezker eraginkorragoa bilakatzen da eta arazo kolektiboei erantzuteko gai da indibidualtasuna alde batera utziz.

Carmen Jimenezen ustez, beste hurrekin alderatuta sormen handiago duten umeek hurrengo ezaugarriak azaleratzen dituzte. Hasteko, gauzak bere osotasunean pentsatzeko gaitasuna dute eta inpultsu naturalak izaten dituzte ideiak esploratzearekiko. Gainera, jarrera eta gai konbentzionalak desafiatzeko joeraz gain, pentsamenduaren independentzia nabaritzen zaie. Azkenik, haur hauek jostariak arduragabeak, mugituak eta bihurriak izaten dira (Alvarez, 2010).

Eskolan zentratuz, lehen hezkuntzan sormen handiago duten hurrek, hurrengo moduetara azaleratzen dute. Alde batetik, irakasleei inozoak iruditzen zaizkien ideia bitxiak eta lan egiteko ez ohiko prozedurak proposatzen dituzte. Bestetik, aldarte propioak eta bihurrikeriak egiteko gogoaz azaleratzen eta arazoak ikusteko sentzibilitate gehiago erakustez gain konpontzeko nahia azaleratzen dute. Horretaz gain, nahiz eta ez ohiko ideiak proposatu efektiboak izaten dira, gainera, malguak dira euren ideietan, lotura asko egin eta proposatzeko gai dira. Bestalde, proiektu eta aktibitate desberdinekiko interesa dute eta egin beharrekin saiatuak dira. Normalean, ikuspuntu berrietatik gauzak ikusteko gaitasuna, ez ohiko erantzunak emateko joera, pertzepzio irrealak atzemateko gaitasuna, kanpoko influentziekiko independentzia, beraiekiko irudi fuertea eta izaera bihurria ere azalerazi ohi dute. Orokorrean eskolaren inguruarekiko integrazio falta dute, honek jarrera desegokiak, aurkaritzak eta erantzun txarrak ematera eramanez ditzake (Ferrandiz et al. 2003).

Sormen handiagoa duten hurren ezaugarriak ikusita, gaitasun hau nola indartu daitekeen argituko da. Izan ere, argi geratu da sormena ezin dela erakutsi berezkoa delako, baina gaitasun hau indartu edo blokeatu daitekeela (Medina, 2005). Lehenengo eta behin, sormena nola indartu daitekeen ikusiko da eta bigarrenik, sormena garatzerako orduan ze oztopo aurkitu daitezkeen. Orain arte bezala, teoria eta ikuspegi ezberdinak aurki daitezke sormena indartzera aldera egin daitezkeen jardueretan edo kontuan eduki beharreko aspektuetan. Jarraian lan honetarako egokienak direnak aipatuko dira.

Ferrandiz et al. (2003)ek sormenezko ikasketak dituen printzipioak azaldu zituzten. Batetik, jatorri malgukoa, zeharkako irakats metodoengatik ezaugarritzen dena eta imajinaziozko dela aipatzen dute. Bestetik, material eta ideiak forma berrietan erabiltzera bultzatu, harremanetan lagundu eta autonomia indartzen duela diote. Azkenik, auto-ebaluazioa ere inplikatzeko duela azpimarratzen dute.

Beste autore batzuk, sormenaren garapenen egoki baterako garrantzitsuak diren elementuak edo faktoreak aipatzen dituzte:

Nickersonek sormena hobetzeko mesedegarriak diren hurrengo elementuak aipatu zituen: intentzioen eta helburuen baieztapena (motibazioa), oinarrizko gaitasunen eraikuntza, kuriositatearen estimulazioa, auto-konfiantza eta arriskurako gogoia, eremu desberdinetako jakintza espezifikoen lanketa, sormena babesten duten usteen bultzatzea, hautaketarako eta deskubrimendurako aukeren eskaintza, autonomia gaitasunen garapena, sormena hobetzeko teknika eta estrategien erakustea eta askatasuna eta estrukturan arteko orekaren eskaintza (Monreal, 2000).

Teresa Amabilek hurrengo sormenaren hobekuntzarako faktoreak bi multzotan bereizten ditu; faktore orokorrak: ikaskuntza gaitasunak garatzea (pertzepziozko eta kognitiboki sustagarriak diren inguruak eskaini), irakats metodo egokiak aukeratzea (ebaluazio positibo eta eraikitzaileak), irakaslearen jarrerak aproposak izatea (sormen handiagoa duten haurrak bihurriak izaten dira eta askotan problematiko bezala hartzen dira), ikaskideen arteko harremanak eta influentziak duen eragina (konformismoarako joerara bultzatzen dute beste haurrek sormen handiagoa duen umea), hezkuntza formalak dituen arriskuak (ezarritako logikari jarraitzen badiote bide bakarra eskainiz); faktore sozialak: sozializazioa (inportantea gurasoak ez izatea autoritarioak, jendarteko rola ez erreproduzitzea), lanerako jarrerak (bere kabuz lana egitea gustatzea eta ez behartzea), sormena eta kontrola (ondo dago kontrolatzea baino ez gehiegi, bere kabuz aukeratzea eginbeharrak asko laguntzen du), sariak (askotan alde txar gehiago dituzte, izan ere haurra sari bat lortzeko lan egitera bultzatzen da eta ez nahi duelako), norbanakoen ezberdintasunak (haur bakoitzaren motibazioa aurkitu behar da) (Monreal, 2000).

Ferrandiz et al. (2003)en ustez sormenaren garapenean laguntzen duten faktoreak pertsonalak eta inguruneak izan daitezke: sormena hobetzea helburu bezala ezartzea ikasketa plana egiterakoan, kuriositatea eta esplorazioa estimulatzea, motibazioarako kondizioak sortzea (motibazio intrintsekoa batez ere), arriskuak hartzeko gogoak sustatzea, sormenak motibazioa eta esfortzua eskatzen duela ulertaraztea,

aukeratzeko eta ikertzeko aukerak eskaintzea, autonomia trebetasunak garatzea, oreka ematea, teknika eta estrategia egokiak eskaintzea.

Azkenik, Robinsonen (2009) iritziz ingurune egoki bat eta talde bateko kide izatea beharrezkoa da. Izan ere, motibazioan, norberaren balioestean, inspirazioan eta estimulazioan laguntzen du. Gainera azpimarratzen du, pertsonak elkarrekin sortzen dutenean, zatien batura gainditzeko gai direla.

Sormena indartzeko faktoreez gain, irakasleak eduki beharreko jarrerak eta dinamikak aurrera eramateko orduan kontuan hartu beharreko gauzak ere aipatzen dira:

Vecinaren (2006) iritziz sormena indartzerako garaian, interesa eta curiositatea lantzea, zalantzan jartzea agerikoa dena beste aukera batzuk sortu nahian, pertzepzio diskriminatzailean kapazitatea handitzea eta alboko pentsamenduaren gaitasuna trebatzea lirateke kontuan hartu beharreko puntuak.

Stenbenberg eta Lubartek (1997) haurren sormenaren hobekuntzarako eskolarako aholkuak eman zituzten: noten balioa gutxitzea (notak motibazio estrictsekoaren erakusle direlako eta honek haurra lan egitera motibatu baino gehiago behartu egiten duelako), sormena edukiaren zati esplizitu bezala ematea (honek gaiaren garrantziaz jabetzera eramaten du ikaslea), ahozko errekonozimendu ematea sormenezko jarrerei, ikasleak hauspotzea haien lanak aurkeztera eta motibazioa tresnak konbinatzea bakoitzari egokiena esleitzeko.

Amabilek eta Collinsek sormena hobetzeko hezitzaileak eduki beharreko jokoerak aipatzen dituzte: ikasleei gustatzen zaiena egiten utzi behar zaie, haurren motibazioa mantentzen saiatu behar da eta sormenaren osagarri guztiei erakusleihoa eskaintzea komeni da (Monreal, 2000).

Ferrandiz et al. (2003)en ustez hurrengoak dira sormena lantzeko taktikak: imajinazioa lantzea exijitzen duten materialak eta fantasia aberasten duten errekurtsioak erabiltzea, ikasleei pentsatzeko denbora uztea, animatzea haien ideiak azalertzera, ikuspegi desberdinak bilatzeko joera indartzea, garrantzia ematea egiten dutenari, jokoak egitea, ikasle bakoitzari egokitzea ikaskuntza, zailtasuna pixkanaka handitzen joatea, ikaskuntza kooperatiboa erabiltzea.

Valerok (2019) geletan sormena lantzeko aholkuak eman zituen: sormena ikaskuntzaren parte bezala hartzea (gelako espazioa bat sormena lantzerako dedikatua jarritz), estrategia egokienak erabiltzea (arte lantzea oso inportantea da), sormenean

gaitasun batean bezala pentsatzea, konexio emozionalak eta pentsamendu dibergentea erabiltzea, ingurune atseginak bilatzea, positiboki ikusaraztea sormena, esfortzua sustatzea, ziurgabetasuna toleratzen ikastea, oztopoak eta zailtasunak gainditzeko iraunkortasuna bultzatzea, haien buruekiko konfiantza sustatzea, sormenezko eta hausnarketako pentsamendu garatzea, ikasleen ahalmena ezagutzea eta honen garapena sustatzea eta tresna egokiak eskaintzea ikasle bakoitzari.

Pertsona bakoitzaren ezaugarriak garrantzitsuak eta kontuan hartu beharrekoak dira, ikasketa plana ikasle bakoitzari egokituz (Durán et al. 2013).

Behin sormena indartzera bidean kontuan hartu beharreko faktoreak eta aurrera eramán beharreko jokamolde eta estrategiak ikusita, hau oztopatu dezaketen elementu nagusiak aipatuko dira, sakondu gabe, azterketan hobeto aztertuko da eta.

Blokeo edo oztopo hauek mota desberdinetakoak izan daitezke. Batetik, pertsona propioak dituenak aurki ditzakegu, Vecinaren (2006) iritziz, sormena garatzerako orduan aurki daitekeen freno handiena, norbanakoak ekintza burutzeko ez dela kapaza pentsatzea da. Honekin lotuta, ziurgabetasuna, porroterako beldurra, eta inguruko gaitzespenari beldurra izateak ere sormenaren garapenean oztopatzen dute (Robinson, 2009). Bestetik, sozio kulturalak, besteak beste, jendarteko arau eta limiteak, zeinak, jarrera konkretu bat determinatzen duten bultzatzea, sozialki estimulatutako modeloak erreproduzitzea, konpetentziaren gehiegizko balioa sustatzea eta bakarrik eta eskusiboki arrakastarako orientazioa indartzea. Azkenik, eskolarenak, konformismoa presionatzea, irakasle eta eskolaren arauak onartu eta men egitera derrigortzea, eduki eta dinamiken obserbazio kritikoa bultzatu orde, autoritarismoa nagusitzea, saiakera sortzaileak barregarri uztea, zigor gehiegi ezartzea, arrakasta gehiegi baloratzea, irakasleak taldearekiko erantzun eta jokaera desberdinak gaizki hartzea eta ez onartzea jokaera jostari eta alaiak (Ferrandiz et al. 2003).

Helburuak

Marko teorikoa bukatuta, hurrengo lau helburuak ezartzen zaizkio lanari. Lehenik, klase dominatzaileari ea komeni zaion sormenaren garapena bultzatzea aztertzea. Bigarrenik, gaur egun ea eskoletan lantzen den edo saiakera egiten den lantzekoa ikustea. Hirugarrenik, benetan ea sormena eta kritikotasuna lantzen den eskoletan ikertzea edo eskolak doktrinamendurako tresna ideologiko bat diren baieztatzea. Azkenik, argitzea hezkuntza formala ikasleen beharretan oinarritua dagoen ala sistema dominatzailearen beharretara?

Metodoa

Behin marko teorikoa amaituta eta helburuak ezarrita, ikerketarekin sartzeko garaia da. Hasteko, sormenak ze eragiten duen jendartean ikusiko da, gaian adituak direnen liburu eta artikuluez baliatuz. Ondoren, hezkuntzaren bilakaera aztertuko da, horrela hezkuntzak jendartean jokatzeko duen papera aztertzeko. Honetarako, liburu eta artikulua hartuko dira oinarritzat. Azkenik, gaur egungo eskolara heldu arte eman den bilakaera ikusita eta hau aztertua dagoenean, bertan ea sormena lantzen den eta instituzioetatik hau bultzatzen den ikertuko da. Azken ariketa hau egiteko, liburu eta artikuluez gain, gaur egun irakaskuntzan dabilzan irakasleei egindako galdetegi bat ere kontuan hartuko da. Galdetegi hau, marko teorikoan ateratako ezaugarriekin izan da osatua.

Emaitzak

Sormenaren papera kapitalismoan

Hasteko, egoera sozio kulturalak, hau da, kapitalismoak, nola eragiten dion sormenari azalduko da. Eskolak sormenaren gainean duen eragina beranduago aztertuko da.

Gaur egungo jendartean sormenaren ezaugarri esanguratsuenetako bat anbiguitasuna da. Izan ere, txalotu egiten da baina aldi berean baztertua da. Egitura sozial eta instituzioak kontserbazioa lehenesten dute aurkikuntzaren gainetik (Monreal, 2000). Ildo beretik, nahiz eta jendartean askotan sormenaren bat bateko agerpenak gerora txalotuak izaten diren, hasieran beldurra ematen dute, zeren eta ezezaguna dena ez gustatzearen joera orokor bat existitzen da. Antolaketa sozial eta politikoak, joera orokor bezala, ezegonkortasuna sor ditzaketen kritikak eta edozein pentsamendu independente boterearen estrukturak suntsitzeko potentziala duena saihesteko helburua du (Medina,2005).

Eysencken hitzetan “hoy día la creatividad esta suprimida en cualquier nivel por la ortodoxia, la autoridad – a todos les disgusta el cambio, la innovación, la revolución-. La creatividad tan solamente alabada, es de hecho anatema; ella amenaza la estructura y no puede ser tolerada. La persona creativa es convertida, quieras o no, en un rebelde, un paria, un disidente” (Monreal, 2000, 19).

Aurrekora itzuliz, Ken Robinsonek (2009) dio kapitalismoaren sen ona edo zentzua dela sormenaren etsai nagusia, jendarteko arau sozialak sormenaren garapena oztopatzen dutela. Izan ere, sormen handiko pertsonak arriskutsuak

konsideratzen dira, baldin eta ez badute aberastasuna ekarriko duen aurkikuntza bat egiten edo ez badute sistema zalantzan jartzen (Monreal, 2000).

Alvarezek (2010) gehitzen du, pentsamendu dibergentea edo sormenezkoa ez gustatzeren joera zabaltzen dela jendartean, horrela sozialki blokeatuz gaitasun honen garapena.

Rodriguezek (2001,50) horrela ezaugarritzen du jendartea, “una civilización tecnócrata, impersonal, escaparate de espectadores pasivos (...) el pensamiento humano nace frente a una cultura aparticipativa, consumista y manipuladora”.

Kapitalismoan, landua ematen da zer pentsatu eta saihestu egiten da gauzak ikusteko beste edozein modu (Cortes, Jimenez, 2016). Kontakizunak, botere logikak naturalizatzen eta usteak sortzen ditu, horrela, hegemonia eraikitzeke tresna nagusia bilakatzen da kontakizuna (García, 2016).

26. orrian “las narraciones y las historias que han venido dándonos cuenta de lo que somos, de quienes somos, de nuestras identidades y nuestro lugar en el mundo, son los relatos que el poder dominante y los poderosos han impuesto, callando, expurgando o simplemente ignorando las historias de las clases subalternas” (García, 2016).

Kapitalismoak modelo dramatiko irudikatuak sortzen ditu, edozein pertsonak ezagutu eta editatu ditzakeenak. Gainera, eredu guzti hauek sistema burgesari zilegitasuna aitortzen diote eta koherentzia ematen diete bizitzeri kapitalismoaren barruan (matxismoa, biolentzia, indibidualismoa eta abar). Historia hauek besteak beste, bakoitzaren gaindipenaren eta arrakastaren inguruan eta injustiziak pertsona gaizto batzuegan zentratu eta sistema ekonomikoaren errua baztertzearen inguruan izaten dira (García, 2016). Kasu hauetan, sistemak irtenbide indibidualak bultzatzen ditu kolektiboak indartu beharrean (De Melo, Yeilich, 2016).

Bestalde, gorago aipatu da kapitalismoaren oinarria produkzio harremanak direla. Beraz, garrantzitsua da ikustea harreman hauetan sormenak duen papera, ondoren sormenak produkzio harremanetan duen papera jendarteko gainegitura osoan nola gauzatzen den ulertzeko.

Orokorrean, enpresa gehienek estruktura kontserbadore bat daukate XVIII. Mendeko doktrina zaharretan oinarritua, non, ez dagoen lekurik sormenarentzat. Oso hierarkizatuak daude eta zaildu egiten dute malgutasuna eta sormenaren ezaugarriak garatzea. Izan ere, estruktura zurrinak dira eta pentsatzeko derrigorrezko patrioiak

ezartzen dituzte. Honekin, lanaren segurtasuna aldatetari kontrajarri egiten dela pentsatzea bultzatzen da, eta prozedura desberdinak ezartzen dira, zeinak, posizio burokratikoak mantentzea bermatuko duten. Horretarako, arau aldagaitzak ezartzen dira (Monreal, 2000).

“Partiendo de la idea de la reducción del hombre a máquina (...), o si se quiere, la explicitación acerca de cuáles son los espacios ocupados por las personas en el sistema capitalista, entendemos que se produce un secuestro de la creatividad. La reducción del hombre a máquina implica que el trabajo en los moldes capitalistas disminuye la realización de las potencialidades del ser humano a las especializaciones de la forma dividida del trabajo. Esto es, buena parte de lo que nos hace humano en sociedad es secuestrada por la obligación que las personas tienen de trabajar en una forma social en la cual el trabajo no es desarrollado con miras al desarrollo de la humanidad, sino para la valorización y la multiplicación del capital. Lo único que importa es atender a los cambios económicos y, para ello, movilizar a todo el estado, sus presupuestos para educación y alterar toda la formación de nuevas generaciones, son solo arreglos necesarios para sostener la primacía del mercado en la organización de la vida social” (De Melo, Yeilich, 2016, 55).

Sormenaren bahiketa honek, ez dio eragiten sormenari bakarrik, baizik eta izaki sozial ororen transformaziorako aukeraren bahiketa bezala hartzen da. Horrela, izaki soziala tresna baten bihurtzen da, kapitalismoaren betiketzerako, helburu ekonomikoak burutzeko eta merkatuaren makinariaren funtzionamendurako pieza klabe bezala. Horrela, sormen prozesua pertsonen gaitasuna bezala ulertua dena, merkatuaren aginduetara egongo den produktuak sortzeko kapazitate bezala eraikitzen da. Sormenaren bahiketa esan daiteke merkatuarentzat eta merkatuak sortutakoa dela (De Melo, Yeilich, 2016).

Hezkuntza formalaren bilakaera

Hezkuntzak izan duen bilakaera aztertzerakoan, historian zehar egon diren etapa desberdinetan ze forma hartu zuen eta honi nola eragiten zioten garai bakoitzeko produkzio harremanak ikusiko da, kontuan edukita gaur egun kapitalismo batean bizi garela, bertan zentratuko gara gehienbat. Izan ere, marko teorikoan aipatu bezala harreman ekonomikoen gainean eta hauetan oinarritua eraikitzen da hezkuntza formala. Honetaz gain azpimarratzekoa, hezkuntza eta garapen ekonomikoa loturik daudela, hau da, ekonomian garapen bat dagoenean, hezkuntza ere aldatu egiten dela honi erantzunez (Ormazabal, 2016).

Lehengo etapari dagokionez, komunismo primitiboa, hemen ez da aurkitzen klase bereizketarik eta beraz, hezkuntza ez dago klase baten beharrei erantzuteko. Hala ere, garai honetan ez da aurkitzen hezkuntza formalik eta gazteagoak zaharretatik ikasten dute, haiei lagunduz ekintzak burutzen (Ponce, 2005).

Bigarrenean sartzera, esklabutzan, dagoeneko klase bereizketa bat bazegoen eta beraz klase dominatzaileak zuen hezkuntzaren gaineko kontrola (Engels, 2017). Espartan zentratuz gero, nobleek bakarrik zuten hezkuntza formala jasotzeko aukera eta hezkuntza hau uneoro arma eta borrokara zegoen zentratua, garai haiek zaldunak sortzea exijitzen zutelako. Gainera, ez zegoen aukerarik esklaboek hezkuntza jasotzekoa, eta dominazio hau beldurraren bidez bermatzen zuten. Atenasen, jarraitzen zuten nobleek bakarrik edukitzen aukera hezkuntza formal bat jasotzekoa. Espartan bezala batez ere armetara eta borrokara zentratutako ikasketak ziren, hau da, soldadu edo gerlariak izateko ikasten zuten. Baina, K. A. 600 urte aldera beharra ikusi zuten irakurtzen eta ikasten erakutsiko zien hezkuntza bat jasotzekoa, garapen ekonomikoaren bilakaeragatik. Hala ere, hezkuntza hau, beti ere nobleentzat bakarrik zen eta ez zuten ahazten garrantzitsuena soldaduak prestatzea zela garaiak ala eskatzen zuelako (Ponce, 2005).

Aurrerago, dagoneko komertzio garatuagoa zegoenean, aukera sortu zen noblea ez zen jendeak hezkuntza bat jasotzekoa (merkatari aberatsenak), hala ere, esklaboek oraindik ez zuten aukerarik eta aurreko esklaboetatik edo gauzak eginda ikasten zuten. Nobleak ez ziren norbanakoak hezkuntza jasotzen hasi zirenean, ideia berriak azaltzen hasi ziren, honen aurrean klase dominatzaileak, gauza jainkotiarretan sinesten ez zuen oro edo teoria heterodoxoak erakusten zituena zigortzen hasi zen (Ponce, 2005).

Baina gauza ez zen hor geratu: “El estado comprendió la necesidad de controlar de modo más minucioso la enseñanza de la escuela, para impedir que las ideas subversivas se infiltraran en los niños. Aristóteles, se quejó de la excesiva libertad que hasta entonces el Estado había permitido a los maestros y exigió una vigilancia estricta sobre sus enseñanzas y sus métodos. No pasaron muchos años hasta que aparezcan, por vez primera, los programas oficiales” (Ponce, 2005, 51).

Hurrengo etaparen hasieran, feudalismoan, erlijioak zuen indarra zela eta, elizak hartu zuen hezkuntzan nagusitasuna monasterioen bidez. Bi hezkuntza mota bereizten ziren, bata etorkizuneko monjeak hezteari begira, denak ez zuten pribilegioa hau hautatzekoa, eta bestea, herri baxuari edo masei zuzendutakoa. Azken honetan, ez zuten irakurtzen eta idazten erakusten, egiten zuten bakarra nekazal familiak

doktrina kristauarekin ohitzea zen. Beraz, irakasteaz baino predikatzeaz arduratzen ziren. Noblei dagokienez, ez zuten eskolarik. Alabaina, heziketa jasotzen zuten, hasieran amarekin. Ondoren, beste jaun bati laguntzen eta handiagoa zenean ezkutari bezala. Azkenik, zaldun izendatzen zuten (Ponce, 2005).

Feudalismoak aurrera egin ahala, klase sozial berrien sorrera gertatu zen merkatuak izan zuen garapenarekin, burgesia sortu zen eta nekazari batzuekin batera nobleziarekin zuten lotura, hau da, haien askatasuna, erosteko baliabideak lortu zituzten. Ekonomian eta harremanetan horrelako buelta bat egoteak, derrigorrez hezkuntzan ere eragina izan behar zuen, eta hala izan zen, pixkanaka elizak hezkuntzaren gainean zuen boterea galduz joan zen. Garaiko produkzio harremanak beste hezkuntza mota bat exijitzen zuten. Katedrak indarra hartu zuten eta XI. mendean burgesiak geroz eta indar handiagoa zuela, bere parte hartzea exijitu zuen irakaskuntzan, horrela unibertsitateak sortuz. Hala ere, ikasketak oraindik goi mailako biztanleen eskura bakarrik zeuden (Ponce, 2005).

Eta hauek ez da asko sakondu, ez delako garrantzitsuena ikerketa honetarako. Izan ere, garai hauek ez zegoen hezkuntza denen eskura. Orain arte esandakoarekin lotua, aproposa da Nico Hirtten (2013) gogoeta bat ekartzea: “En primer lugar (...) las mutaciones de la escuela no se pueden explicar por los caprichos de algunos pedagogos o por las bondades de los políticos, sino por el desarrollo de las condiciones materiales que dictan la organización y las contradicciones de nuestras sociedades: Las ciencias, la tecnología, y su impacto sobre la producción. En segundo lugar, (...) Desde Atenas y Esparta hasta el Siglo de las Luces, la historia de la escuela institucionalizada es la historia de la formación de las élites sociales y políticas. Salvo algunas raras excepciones, ni los esclavos de Roma ni los campesinos flamencos y valones del Siglo XIII iban a la escuela”.

Feudalistik kapitalismora pasatzean ematen da aldaketa handiena hezkuntzan, burgesiaren helburua dagoeneko klase dominatzaile bezala, merkatuaren konpetentziarako egokiak izango diren norbanakoak eratzea da. Logika indibidualista batean, non, irabaziak pertsonak haien artean lehiatzera eramaten dituen uneoro. Gainera, burgesiak ezin du ikaskuntza ukatu aurreko bi garaietan bezala. Izan ere, industrian garatzen doazen makinak kontrolatzeko ez da nahikoa aurreko garaitako esklabo edo jopuek zuten heziketa mailarekin. Hau da, langileak ezingo du nagusia asebate ez badauka oinarrizko ikaskuntza bat, hortaz, heziketa minimo bat eman behar zaio bere esplotazioa bermatzeko (Ponce, 2005).

Hala ere, hasieratik ez dira eskolak guztiz betetzen. Kapitalismoaren barruan ere bilakaera nabarmena izan du eskolak, ez zen hasieratik gaur egun ezagutzen dugun bezalakoa. Lehenengo garaietan makinismoak ezaugarritzen du jendartea. Pertsona bakarrak egiten zuten lan konplexua, fabriketan pilotutako langile mordoarengatik aldatzen da, non, lan sinple eta bakarra egin behar duen bakoitzak makinak ezarritako denboretan. Honek ez zuen jakintza askorik eskatzen, hori dela eta, kapitalismoaren lehen garaietan ez zen bultzatu klase baxuetako haurrak eskolara joatea (Hirtt, 2013).

XIX. mende erdialdean ematen du aldaketa burgesiak eta langile klaseko haurrak masiboki eskolara bideratzea erabakitzen du. Hau, ez da gertatzen ez formazio tekniko bati erantzuteko, ezta burgesiak demokraziarengatik duen kezka edo arduragatik ere. “La verdadera razón está en esta extraordinaria frase de Víctor Hugo: «Abrir una escuela es cerrar una prisión». La alienación intelectual del proletariado, la pérdida brutal de referencias culturales para una población arrancada de la vida rural y hundida en la miseria urbana, la disgregación de los lugares tradicionales de educación y de socialización... todo esto había terminado por provocar un embrutecimiento moral de las clases populares. En las grandes entidades urbanas, donde el control social y clerical eran menos exigentes que en el campo, donde las tentaciones eran numerosas, donde sobre todo la explotación, la miseria y las desigualdades sociales agudas tendían a legitimar todo medio para conquistar un poco de felicidad, una parte del proletariado se hundió en el vicio, el alcoholismo, la violencia, la criminalidad, la prostitución. Así, la clase obrera no hacía más que reflejar la brutalidad que sufría en el trabajo y en sus condiciones de vida, pero también se convirtió en una amenaza para el orden público” (Hirtt, 2013). Hau izan zen masen eskolatzearen lehen helburua, hauen sozializazio eta heziketa bermatzea sistemaren baitan. Bertan erakusten zena hurrengoa zen: morala, erlijio, pesoen sistema eta neurriak eta irakurtzea eta idaztea (Alonso, 1980).

Denbora aurrera joan ahala, fabrikak geroz eta handiagoa eta gehiago zeunden, honek langileria handitzea ekarri zuen eta geroz eta antolatuagoa egotea, ideia berrien inguruan antolatzen, ideia sozialistak. Gainera, gerrak ere indarra hartu zuten, besteak beste, Parisko komuna edota I. mundu gerra. Horregatik ez zen nahikoa irakurtzen eta idazten erakustearekin eta arau moral eta erlijiosoak zabaltzearekin. Garaiko egoerak exijitzen zuena, aberriarekiko eta instituzioekiko maitasuna edukitzea zen. Horretarako, historia eta geografia lehen aldiz eskoletan ematen hasten da. Horrela, eskolak estatuaren aparatuko ideologikoaren papera hartzen du (Hirtt, 2013).

Sozializazio tresna eta aparatu ideologikoaren helburuak bete ostean, aukeraketarako eta ekonomiari erantzuten zion tresna bilakatu zen eskola. Teknologia industrialak eta administrazio publikoaren gorakadak, lan kualifikatuagoko eskaera egiten zuen eta nahiz eta langile gehienak sozializazio minimoarekin nahikoa zuten, langile adituen beharra ere bazen (Acaso, 2013). Horregatik, XIX. mendearen ostean eskola lan adituaren produkzioarako tresna esentzial bilakatu zen. “El sistema educativo orientaba ahora para abrir secciones modernas, técnicas o profesionales. Allí se reclutaba la “crema” de los hijos e hijas de la clase obrera, con el fin de convertirse en la generación de obreras y obreros especializados, técnicos, empleados y funcionarios que la sociedad reclamaba. Esa fue la era de la “promoción social” para la escuela.” (Hirtt, 2013).

Hezkuntzan ematen den hurrengo aldaketa, arrakasta ekonomikoak eta lan merkatuaren ezaugarrien eboluzioak ekarri zuen. Zenbait ekonomialariek esan zuten heziketak garapen ekonomikoan garrantzi handia zuela (Uranga, 2017). Lan indar ez adituak edo ez kualifikatuak indarra galdu zuten eta beharrezkoa zen langileen prestakuntzaren maila orokorra igotzea eta elitearen eskolak herriarentzat ere ireki ziren. Honi eskolaren demokratizazioa edo meritokraziaren sistema deitu zioten eta haur guztiek aukera berdina zutela aipatzen zuten, baina ez zen horrela. Honek bereizketa lehen hezkuntzan egin ordez, bigarren hezkuntzan egitea ekarri zuen eta honekin aukeraketa negatibo baten ezaugarria zetonen, eskola porrotean oinarritutako aukeraketa (Ormazabal, 2016) (Hirtt, 2013).

Beraz, honek desberdintasun sozialetan oinarritutako aukeraketa bat izaten jarraitzen du. Ikerketak adierazten dute eskola barruko kultura klase altu eta ertainei lotua dagoela eta horregatik emaitza hobekiak dituztela. Hortaz, eskolak ezberdintasun sozialak eta ekonomiakoak erreproduzitzen ditu (Ormazabal, 2016). Datuak aztertzen hasita klase konposizioak hezkuntza prozesuaren arrakastan zerikusia baduela frogatzen da. Nafarroako Hezkuntza Sailaren datuak aztertzen baditugu, agerikoa da ISEK indizearen marka: DBHko 4. maila errepikatzen duten ikasleen kopurua, adibidez, %30ekoa da testuinguru sozioekonomiko baxuko ikasleen artean; eta %1,4koa soilik klase altukoaren artean (Etxarte, 2018). Espainian jarriz gero begirada, Ceuta eta Melillako datuek erakusten dute hezkuntza porrot handiena, %47,7 porrotarekin eta Valentzian ekonomikoki okerrenak dauden auzoetan hezkuntza porrota %88ra iristen da (Tirado eta Romero, 2016).

Bestalde Poncek (2005) azpimarratzen du, eskolako neutraltasuna deitutakoak, haurra benetako errealitate sozialetik kanpo uztea duela helburu, hau da, klase borrokaren eta esplotazio kapitalistaren errealitatetik at geratzea.

Aldaketa honekin batera, kapitalismo mundiala globalizazioaren aroan sartu zen eta honek eskolaren globalizazioa ekarri zuen. Horrela hiru elementu aipa daitezke: “En primer lugar, la globalización ha inducido a una competencia entre los Estados para atraer los inversores, se reduce entonces la carga fiscal sobre los capitales, los ingresos mobiliarios, los altos salarios y los beneficios de las empresas. Así, los márgenes de maniobra presupuestaria del Estado disminuyen, lo cual somete a las políticas de enseñanza a una fuerte ofensiva de austeridad. En segundo lugar, el traslado de los empleos de la industria hacia los servicios así como el desarrollo tecnológico, inducen en las economías “avanzadas” a una polarización del mercado de trabajo. «Atender el crecimiento más importante de empleos en los puestos de gerencia y a nivel de profesionales y técnicos de más alto nivel, al igual que el empleo en el sector de servicios exige una calificación media o baja». Y por último, la inestabilidad económica y el ritmo desenfrenado de la innovación tecnológica, pero sobre todo el carácter anárquico de la economía capitalista, hacen imposible toda política preparatoria en materia de formación y de calificación” (Hirtt, 2013).

Aldaketa hauek eskolaren merkaturatzea ekartzen dute. Horrela, eskolaren merkataritzako pribatizazio, inbertsioak eskoletan eta abar etortzen dira. Gainera, OCDE eta bere azterketa PISAk eskolaren modelo honi erantzuten dio (Ferrandiz et al. 2003) (Hirtt, 2013).

Apple-ek (1986,61) merkatuaren eta hezkuntzaren lotura adierazten du: “¿Qué papel juega la escuela que ayuda a crear un proceso de credencialización basado en la posesión (y no posesión) de este capital cultural, un sistema credencializador que suministra un número de agentes aproximadamente equivalente al que necesita la división del trabajo en la sociedad? Creo que estas cuestiones tienen unas consecuencias importantes, pues esta relación no es unidireccional. Aquí, la educación es tanto una causa como un efecto”.

Hezkuntzaren garapena aldaketa teknologiko eta ekonomikoen exigentziak ezarritako tendentzia dominatzailea da. Teknologia industrial berrian aldatu egin da eskulanaren papera, orain ikerketa, kualifikazio profesional eta hezkuntza sistemaren eraginkortasunaren menpe dago, batez ere, zientifiko eta teknologoen eskakizun asegaitzari erantzuteko (Alonso, 1980).

Hezkuntzaren garapen orokorra ikusita, gaur egun jokatzeko duen paperaz hitz egin behar da. Eskola hezkuntza sistema formalaz arduratzen den erakunde bat dela kontuan eduki behar da. Izan ere, hezkuntza ezin da sistema kapitalistatik kanpo dagoen erakunde bat bezala ulertu, materialismo dialektikoak erakusten digun bezala gizartean dena elkar lotua dago (Politzer, 2018). Orokorrean, erakunde hau aurkitzen den estatuaren legediaren baitan kokatzen da eta estatuaren gainerako hezkuntza sistema formaleko erakundeekin lotura izaten du (DBH, Formakuntza Profesionala, Batxilergoa, Unibertsitate eta abar). Horrez gain, ohikoa izaten da gainerako erakunde hauekiko lotura administratiboa eta programa pedagogiko berdinak mantentzea, erakunde sare hauek gizarte horren erreproduzio sozialerako formazio lanketa egiten baitute. Beraz, marko teorikoan aipatu bezala, eskola estatuaren aparatu ideologikoaren parte da eta gizarte jakin baten egitura ekonomiko/sozialerako dago pentsatua eta norabide horretan murgiltzeko gai diren subjektuak hezteko da bere helburua. Hau da, logika sozioekonomiko kapitalista oinarrituta dagoen gizarte baterako (Uranga, 2017) (Alonso, 1980) (Althusser, 2014).

Gainera, kontuan eduki behar da, instituzioak estruktura sozialak direla, zeinak, norbanakoa dominatu eta esklabo bihurtzen duten, eta zeinetan, zientzia eta teknologiak ez diren produktu sozial neutroak, baizik eta aparatu dezisiboak estruktura zapaltzaile hauentzat (Alonso, 1980).

Behin eskola bere lekuan kokatuta bertan betetzen dituen bi funtzio nagusiak azalduko dira. Lehenik eta behin, lan indarraren erreproduzioa, hau da, gizartearen sektore zabalak soldatapeko lan batean txertatu ahal izateko prestatzea. Honetarako, hezkuntza prozesu osoan jakintza akademiko zehatz batzuk helarazten dira, zientzia eta letren adarrek hartzen dute pisua ondorengo espezializazioetatik datozen ikasketetan txertatzeko. Eta bigarrenik, logika kapitalistan txertatzeko balore ideologiko zehatz batzuk helaraztea: autoritate bertikala irakaslearekiko, jarrera pasiboa eta ordutegi zehatzak, esfortzu ez atsegingarriak prozesu natural bezala ulertzea eta abar (Althusser, 2014).

Urangak (2017) beste modu batera baina bi funtzio berdinak esleitzen dizkio eskolari. Bere iritziz, heziketa sistemaren helburua, hiritar baliagarriak sortu edo ahalbidetzea da, kapitalismoari erantzungo diotenak, moldagarri eta fidelak, zintzoak, pasiboak eta despolitizatuak. Estrukturak berdin jarraitzea da helburua. Horretarako, aurreko bi funtzioetan oinarritzen da. Batetik, enpresak eta lan munduak, ikasle kualifikatu eta azkarrenak nahi dituzte goi postuetarako, arazo gehiago edo gaitasun gutxiago dituztenak alde batera utziz beheko mailarako. Horrela, eskolaren joera

indibidualista bultzatuz eta ikasleak haien artean lehiatzera bultzatuz, ondoren jendartean bakoitzak ahalik eta hoberen egiteko lan. Bestetik, “subjektu abstraktu eta unibertsalak ekoizten dituen dispositibo unibertsalista eta instrumentalista ere bada” eskola, hau da, sistema dominatzaileak nahi dituen subjektuak heziz. Laburtuz, Hezkuntza sistemak txikitatik norbanakoak moldatu eta hezten ditu etorkizunean estatuari erantzungo dioten pertsonak izateko. Bi aspektutan, kapitalismoak behar duen langilea, eta bestetik, jendarteak behar duen pertsona (Uranga, 2017).

Bowles eta Gintis (1972, 84) ere ildo beretik doaz: “las relaciones sociales de la escuela (...) corresponden a las relaciones sociales de la producción... La escuela es un orden burocrático con una autoridad jerárquica, unas reglas, una estratificación a través de la capacidad (expediente) y de la edad (grados o títulos), con una diferenciación de roles según el sexo (educación física, economía domestica) y un sistema de incentivos exterior (notas, posibilidad de promoción, amenaza de fracaso) muy similares al sueldo y al *status* de la esfera del trabajo”.

Eskolaren bi funtzioekin amaitzeko, Apple (1986) ere ondorio berdinetara heltzen dela aipatu behar da. Haren ustez eskolaren funtzioak, lehenik, gizartean txertatzeko beharrezkoak diren jakintzen instrukzioa, eta bigarrenik, baloreen sozializazioa dira.

Laburbilduz, hezkuntza sistemaren helburua (gainegitura ideologikoan kokatzen diren erakunde guztiena bezala) produkzio kondizioen erreprodukzioa bermatzea da. Hau da, gizarte eredu hori mantentzen duen oinarri ekonomikoak zutik jarraitu dezala bermatzea. Horretarako bi funtzio betez: lan indarraren kualifikazioa eta ideologia nagusiaren barneratzea (Ormazabal, 2016).

Sormenaren lanketa eskoletan

Behin eskola jendartean dagokion lekuan kokatuta eta bere funtzio nagusiak azalduta, funtzio hauek betetze aldera eskolak zein ezaugarri dituen eta sormenaren lanketarekin duen loturaren azterketa azalduko da.

Metodologiari dagokionez, ikasgelan hiru oinarri nagusitan banatzen da: magistrozentrismoa, entziklopedismoa eta magistralismoa. Lehenak, irakasleak heziketaren oinarri jartzen ditu, eta beraiek dutela kontrol osoa ikasgelan adierazi nahi du. Bigarrenak, ikasleak ikasi beharreko guztia antolatua eta eskuliburuetan dagoela esan nahi du. Hirugarrenak, heziketa eredu bakarra dagoela azpimarratzen du, ikasle guztientzat berdina, orokorrean, edukiak memorizatzean eta irakasleak esandakoa errepikatzean oinarritzen dena (Uranga, 2017).

Lehenengo puntuari erreparatuz, irakasle eta ikaslea harremanari, bi rol aurkitzen dira, hitz egiten duena eta apunteak hartzen dituen, irakasten duena eta ikasten duena, agintzen duena eta obeditzen duena zehazten du Acasok (2013, 73):

“es que las practicas educativas actuales distan mucho de ser democráticas. Quizás estas dinámicas tengan que ver con inercias heredadas del siglo XIX y con el paradigma industrial, cuando el espacio pedagógico se configuro como la representación de la fábrica, donde existía una figura individual que acumulaba todo el poder (capataz/profesor) y otras figuras secundarias y grupales, es decir, los peones que más tarde han sido entendidos como estudiantes. Uno manda y otros obedecen: uno decide que se va hacer durante ocho horas que dura la actividad y otros lo acatan; uno organiza mobiliario y los otros se sientan sobre las sillas y las mesas dispuestas de determinada manera; uno elije los temas, los secuencia y diseña determinados mecanismos para comprobar si esos temas se han insertado en la mente de los estudiantes; uno marca los tiempos, si podemos levantarnos para ir al baño o no, si la puerta quedara abierta o cerrada, si podemos o no beber agua. La figura del profesor decide realmente casi todo lo que ocurre en la mayoría de los procesos de aprendizaje de manera profundamente asimétrica, desigual, monológica, es decir... antidemocrática”.

Honek sormenean duen eragina hurrengo da. Lehenik eta behin, konformismoa presionatu, eta ikasleak irakasleen eta eskolaren arauak onartzera eta obeditzera derrigortzen ditu, gauzen behaketa kritikoa bultzatu beharrean, sormenaren garapena oztopatuz. Gainera, autoritarismoarekin berezotasuna baliogabetzea bultzatzen da, zigorra gehiegi erabiltzen da eta gaizki ikusiak daude taldearekiko desberdinak diren jokaerak, izaera jostari eta bihurriak ez dira onartzen (Ferrandiz et al. 2003).

Freirek (2017) azpimarratzen zuen, sormen pedagogikoa lotua dagoela politikaren sormenarekin. Pedagogia autoritario eta itxiak, beste edozein praktika politikok bezala, ez dio uzten lekua sormenari eta honek dakarren askatasunaren ideari, honek ekar dezakeen komunitatearen transformazioagatik.

Bigarren oinarrian jarriz begirada, entziklopedismoan, aipatzen da ikasleak ikasi behar duten guztia idatzia eta eskuliburuetan dagoela. Baina honek ez die ikasleei bakarrik eragiten. Urangak dio “planifikazio burokratiko gordin batek gatibutzan mantentzen ditu irakasleak, goitik esaten baitzaie zer irakatsi behar duten eta ze modutan, zenbat denbora erabili behar duten eduki jakin bat emateko eta zein protokolori jarraitu behar dioten arazoren bat suertatzen denean. Aurrezarritako plan

bati jarraitu behar diote nahitaez”. Beraz, ikasleez gain irakasleek ere autonomia eta sormenaren garapena bultzatzeko baliabideak galtzen dituzte.

Honi gehitzen zaizkio euskal autonomia erkidegoko ikastetxeetako hainbat irakasleek betetako inkestaren erantzun batzuk (2. eranskina):

“Ikasle kopuru oso handiak dira eta hori oztopo bat ikaragarria da”

“Beti ez dugu denbora nahiko izaten gertuko zuzenketa egiteko, geletako aniztasuna eta ikasle kopuru handiagatik”

“Ikastetxe guztiak dira desberdinak eta gehienetan alde zuzenetik ezarritako metodoa jarraitu behar izaten dugu: liburu, proiektu, ... dena delakoa. Askotan eskuak lotuta dauzkagu”

“Liburu bat jarraitzeak asko mugatzen du”

“Testu edo gidaliburu batek guztiz mugatzen zaitu eta gainera jorratzen diren gaiak orokorrean, zaharkituta daude”

Gainera inkesta berdinean egindako galdeketa batean 211 irakasletik %72ak erantzun zuen ez duela denbora nahikoa klasea berak nahi duen eran antolatzeko (3. eranskina).

Hau dela eta, irakasle asko hezkuntzaren teoriari eta aurrera eramaten duten praktikari dagokionean bidegurutzean aurkitzen dira. Izan ere, askok ez dute denbora nahikorik haiek nahi luketena egiteko (Martinez, 2016).

Hirugarren puntuari dagokionez, magistralismoari, honen barruan beste hiru multzo aurki ditzakegu: irakasleak dioena egia da, asimilazioa eta ikasle guztiak berdinak dira.

Lehenik, pedagogian egon den gai tabu bat, egiarena da. Autoritateetatik erakusten den guztia egiazkoa dela transmititzen da, baina curriculum asko gezurrak dira inoiz egia existitu ez den mundu batean. “Todo aquel contenido que aparece inmerso en un acto pedagógico, inmediatamente queda percibido como cierto. Ocurre lo mismo si vemos un informativo u oímos la radio: lo que sucede en la pantalla o nos cuentan a través de las ondas lo percibimos como lo que ha ocurrido en la realidad, lo damos por cierto sin reflexionar sobre las posibilidad de que ambos relatos son construcciones mediadas sobre lo que paso (...) aceptar la idea de la pedagogía como

un fraude. Y, dentro de esta concepción de lo educativo, tendría un papel central el profesor como estafador” (Acaso, 2013, 51).

Betidanik erakusten da hezkuntza formaleko ekintzak objektibo eta zientifikoak direla eta ez da uzten zalantzan jartzen irakasleak esaten duena, eta eskolan nahiz eta bide asko egon erantzun bat bilatzeko bakarra dago onartua irakasleak eta liburuak diotena (Robinson, 2009). Honetaz gain, kapitalismoak historiaren mito, ikerketa eta kontakizunak sortu eta eskolan aurrera eramaten ditu. Beraz, curriculumak errepresentazio sistemak dira eta errealtatea erakutsi beharrean, sortu egiten dute eta ez da zalantzan jartzen (García, 2016).

Acasok (2013, 30) dio: “La metáfora del espejo, la (falsa) certeza de que aquello que el profesor decía, prácticamente dictaba, podía ser recogida por los estudiantes de manera absolutamente simétrica, especular, perfecta; la convicción de que aquellos apuntes eran LO QUE HABIA DICHO EL PROFESOR, eran sus palabras hechas letras, sus respiraciones eran comas, eran LA REALIDAD, LO QUE HABIA QUE ESTUDIAR: eran la verdad”

Bigarrenik, eskolak bankuen logikako hezkuntzari erantzuten dio, non, edukien memorizazioa eta erreprodukzioa den helburu nagusia, harremanak zurrinak eta hierarkiakoak diren, informazioa egi absolutu bezala hartzen den eta ez dagoen arazoan konponketara bideratua. Orokorrean, ikasleak zenbakiak bakarrik dira, eta haien egin beharra azterketak gainditzea eta graduatzea da (Freire, 2017) (Durán et al. 2013) (Espinosa, 2016).

Bide beretik jarraituz, hezkuntza sistemak ez du bultzatzen pertsona sortzaileak heztea. Edukien barneratze pasiboa errutina bat da eta horrela, makinak bezalakoak diren pertsonak hezten ditu (Valero, 2019) (Ferrandiz et al. 2003). “Enseñar no debe parecerse a llenar una botella de agua, sino mas bien a ayudar a crecer una flor a su manera. Noam Chomsky” (Diz, Leiva, 2016, 71). Hau marrazki batzuen bidez adierazi zuen Francesco Tonuccik (Gomez, 2008) (4. eranskina).

Honek dakarrena da, pentsamendu kritikoak eta hezkuntza ikusteko modu desberdinak ezereztuak eta baztertuak izatea, honen aurrean, liburuak edo irakasleak ezarritako bideak jarraitu behar direla da pentsamendu hegemonikoa (Espinosa, 2016). Hortaz, Haurrak kontzientzia kritikoa ez garatzea eta ezjakintasunean bizitzea du helburutzat hezkuntzak (Gramsci, 1976). Izan ere, ikasleei kritikoak izaten erakusten bazaie eduki edo asignatura konkretu batean, sistemarekin kritikoak izaten ikasten dute, gauza guztiak analizatzen erakusten zaie. Beraz, zalantzan jartzen dute

komunikazio bitartekoen informazio eta propaganda eta hau ez zaio komeni statu quo ari (Acaso, 2013).

Oso ondo adierazten du hau Freirek (2017) pedagogia dominatzailea klase dominatzaileen pedagogia da. Kapitalismoan hezkuntzak, lan eta klase sozialen banaketa mantentzeko beharrezkoak diren baliabideak erakusten ditu. Hortaz gain, bertan sustatzen dituen balore eta jarrerak, banaketa bera betikitzen laguntzen dute (Alonso, 1980). Gainera, esanguratsua da kritikotasuna eta sormena elkar lotuak daudela, kritikotasuna ezabatzeko sormena blokeatu beharra dago (Ferrandiz et al. 2003). Horregatik ez da sormenaren lanketa bultzatzen. Izan ere, antolaketa sozial eta politikoak, ezegonkortasuna sor ditzaketen kritika edo pentsaerak saihesteko eta neutralizatzeko joera orokorra du, eta hezkuntzan ere berdina pasatzen da, horrela, pentsaera desberdina edo sormen handia duten haurrei haien garapena oztopatzen zaie (Medina, 2005) (Diz, Leiva, 2016).

Hirugarrenik, gaur egungo hezkuntza politikak, eskola jakintza teknologikoen, preskripzioen eta exekutiboen espazio bezala hartzen dute, alde batera utziz subjektua eta bere egoera kultural, politiko, sozial, historiko, ekonomiko eta geografikoak, hau da, subjektuen ingurumen edo testuingurua ez da kontuan hartzen (Espinosa, 2016) (Ferrandiz et al. 2003). Ildo beretik, Valeroren (2019) ustez klasean denak logika berdinarekin funtzionatzea nahi da, homogeneoa bilakatu nahi da klasea eta ez da ikasle bakoitzaren egoera kontuan hartzen. Hortaz, esan daiteke eskola ikaslearen zentratu beharrean status quo mantentzean zentratzen dela (Espinosa, 2016). Hau sormenarekin lotuz, Monrealek (2000) dio, sormena landu eta hobetzeko bi aspektu oso garrantzitsu hartu behar direla kontuan: ikaslearen jatorria eta ingurunea edo testuinguru soziala. Eta hau gaur egungo hezkuntzan ez da egiten.

Honekin lotua irakasleen erantzun batzuk jarraian (2. eranskina):

“Dugun denbora unitate didaktiko bakoitzerako laburregia da ikasle guztiengan ikaskuntza esanguratsuak bermatzeko. Azken finean, denborak edukiak modu ezberdinetan lantzeko aukera mugatzen du”

“Galdera bitartez bideratuko nituzke ikasle bakoitzaren lanak eta denbora gehiago eskaini bakoitzari. Nahiz eta bakoitza hartzen dudana kontutan askotan denbora ez izanagatik azalpen orokor batera jo behar izaten dut eta azkenean beraiek lortu beharrean ariketa nola egiten den neuk bukatzen dut azaltzen (talde handian)”

“Denbora faltagatik batzuetan ezinezkoa egiten da plan espezifikokoak egitea ikasle bakoitzarentzat”

Hiru oinarri hauetaz gain hainbat ezaugarri ere sormenaren garapena oztopatzea lortzen dute. Hasteko, ebaluazio, azpimarratzekoa da gaur egungo eskola ebaluazioan zentratzen dela ikasketa prozesuan zentratu ordez. Garrantzi handiena jasotzen diren kalifikazioak dute eta ez ikasten denak. Horrela ebaluazioa, estatuak hezkuntzarekiko duen egiazkotasuna luzatzeko sistema bilakatzen da, non, bere existentziak benetan ez duen zer ikusirik ikasketa prozesuarekin. Benetan jakintzen balioztatzearekin dago lotua, klase sozialak organizatu eta konparazioak ezartzeko mendebaldeko jendarteak behar dituen mekanismo artifizialekin (Acaso, 2013). Gainera, arrakasta gehiegi baloratzen da eta sormenaren garapenean eragin negatiboa du, arrakasta ohiko gauzekin lotua baitoa (Ferrandiz et al. 2003).

Irakasle ezberdinek noten inguruan diotena (2. eranskina):

“Gurasoek garrantzi handia ematen diete eta hezkuntzak berak, ikasle desberdinen ezaugarri desberdinak ez ditu kontutan izaten. kurtsoaren zehar ikasle desberdinek bere neurriko programazioa izaten dute, baina azkenean hezkuntza sistemak denek neurgailu berdinekin sailkatzeko eskatzen digu, inkoherentzia izugarria”

“Hezkuntza sistemak eta jendarteak ezartzen diote garrantzi hori. Tamalez, gaur egungo umeak eskolara joaten direnean ikasteko asea galdu eta notetan eta ikasgaiak gaintitzean zentratzen dira (gu ere, irakasleok, horrela lan egitera "behartuta" gaudelako)”

Bestalde, orokorrean jendartea eta hortaz, hezkuntza, lehiakortasunean eta indibidualismoan dago oinarritua. Sistemak irtenbide indibidualak bultzatzen ditu eta eskola horren erakusleho da. Sortu zenetik saritu du bakarkako lanaren eta lehiaren kultura. Orokorrean, norbanakoaren merituak bakarrik hartzen dira kontuan eta helarazten dituen jarrera eta baloreak, ia beti, etorkizunean bakoitzaren salbaziorako eta honengatik bakarka borrokatzekoak dira. Honek talde lana eta sormen kolektiboa galarazten ditu (Ferrandiz et al. 2003).

Lehen hezkuntzako irakasle batek dioena gaiaren inguruan (2. eranskina):

“Presaka bizi den gizarte batean irakaskuntza ere presaka bizi da. Gehiago esango nuke gizartearen zati handi batek uste du txikitatik "ohitu" behar dela erritmo horretara eta ez du ondo ikusten patsadaz aurrera eramandako hezkuntza. Metodologia desberdinak egon badaude baina orokorrean kompetibitateak eta elitismoak pisu gehiago dute ikasleei pentsatzeko eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen duten metodologiek baino”

Honetaz gain, esan daiteke orokorrean hezkuntza sistemak, ikasle ez sortzaileari egiten diola mesede (alvarez, 2010). Ikerketa ugaritan ateratzen dira hezkuntza formalak dituen arriskuak sormena bultzatzerako orduan, normalean blokeatu egiten du eta. 1960an Mckinnonek konprobatu zuen eskolako arrakasta ez zegoela lotua sormenarekin. Bestalde, Simontonek, garaian sormen handikoak kontsideratzen ziren 300 pertsona aztertuta, eskolan nota onak ez zituztela ateratzen ohartu zen (Monreal, 2000).

“no es difícil entender que no siempre se potencia la creatividad en las escuelas y desde los estados. Pensar cuál es el motivo puede llegar a resultar siniestro y la vasta creatividad del género humano ha alumbrado no pocas creaciones que se refieren a distopías drásticas en las que la fuerza de la tiranía ahogaba la creatividad de la humanidad bien por medio de leyes, de drogas o de grotescos principios y mentiras” (Diz, Leiva, 2016, 73)

Sormenaren lanketaren inguruan diotena hainbat irakaslek (2. eranskina):

“Uste dut sormena dextente mozten dugula sistema dagoen bezala”

“Ez da eskolak bultzatzen duen gaitasun bat LHn. Nik 6. mailakoekin ibili naiz eta ikusten da ikasle batzuen garapena arlo horretan ez dakigula bideratzen”

“Sormena pertsonak berarekin dakar baina hezkuntzak (orain arte planteatu izan den eran) oztopatu besterik ez du egiten sormen horren garapenean”

Gainera, 212 irakasletik %12,7 erabiltzen du zuzentzerako orduan benetan sormenari mesede egiten dion teknika: ikaslea, irakasleak esan gabe erantzun zuzena ondo egon arte erantzuna bilatzen saiatzea. Hala ere, %74,2ak dio baliabide edo denbora gehiago edukita beste modu batera egingo lukeela (3. eranskina). Honetaz gain, %39,4ak bakarrik uzten die ikasleei pentsatzeko behar duten denbora eta %50,2 dio beti ez dutela denborarik hau egiteko (3. eranskina).

Bestalde, marko teorikoan ikusi da jolasak hurren sormenaren garapenean paper garrantzitsua hartzen duela. Alabaina, galdetegia erantzun duten irakasleen %79ak denbora edo baliabide gehiago balituzte, gehiagotan erabiliko lituzketela jokoak diote (3. eranskina).

Hala ere, ohikoa da pentsatzea eskola aldatu daitekeela edota eskola eredu desberdinak daudela jendartearen barruan, honen aurrean Urangak (2017) pentsatzen du, nahiz eta eskola desberdinak egon, ustean metodologia ezberdinarekin, denak sistemaren abanikoan dauden eskola ereduak direla. Izan ere, sistemak ez du utziko

benetan ezberdina edo alternatiboa den heziketarik gauzatzen. Azkenean, eskola guztiak egin behar diote men estatuak markatutakoari, berak markatzen ditu eduki minimo eta ebaluatzeke moduak. “Aldaketa kosmetikoak baino ez dira. Berdin du eredu aurrerakoiagoa edo atzerakoiagoa hautatzen den, neskak eta mutilak elkarrekin dauden edo ez, elitista den edo ez, funtsean den-denak logika berari obeditu behar baitiote” (Uranga, 2017, 29).

Izan ere, hezkuntza kondizionatua dago jendartearen egitura eta aldaketa sozialengatik, konkretuki, klaseen egitura eta gatazkarengatik (Alonso, 1980). Eta denbora aurrera joan ahala kapitalismoan denentzako eskola sortu zenetik oso gutxi aldatu bada, politikarien menpe jarraitzen duelako eta sistemari interesatzen zaiona modelo hau delako da (Uranga, 2017).

Alabaina, hezkuntza sistemak jasan ditu aldaketa batzuk langile klasearentzat onurak izan direnak. Aldaketa hauek, nahiz eta askotan masen aldarrikapenetatik edo gobernatzaileen inizatibetatik etorriak izan, botere hierarkia aldatuko ez duten moduan egiten dira (Alonso, 1980). Azken finean hezkuntza tresna beharrezkoa da klase dominatzailearentzat. Horrela dio Poncek (2005, 173): “El concepto de la evolución como un resultado de la lucha de clase nos ha mostrado, en efecto, que la educación ese el procedimiento mediante el cual las clases dominantes preparan en la mentalidad y la conducta de los niños las condiciones fundamentales de su existencia. Pedirle al estado que se desprenda de la escuela es como pedirle que se desprenda del ejército, la policía o la justicia. (...) La clase que domina materialmente es la que domina también con su moral, su educación y sus ideas”.

Atal honekin amaitzeko, curriculumaren gaiari gainbegiratu bat emango zaio. Egia da paperaren gainean, heziberri 2020-en sormena asko aipatzen dela eta konpetentzia eta arlo desberdinetan markatzen dela garrantzitsu eta landu beharreko gauza bezala. Gainera, artea konpetentzia bezala ere aipatzen da (heziberri 2020). Baina errealitatean ez da bultzatzen honen lanketa, batez ere orain arte aipatutako eskolak dituen ezaugarriengatik. Honekin sartu baino lehen garrantzitsua da Urangak (2017, 105) aipatutakoa kontuan hartzea:

“Heziberri 2020 (...) funtsean LOMCEren bertsio vascongada baino ez da. Heziberrik ateak irekitzen dizkio LOMCEren inpronta merkantilista eta eduki ideologikoaren ezarketari, EAEko heziketa-sistemak espainolaren mende egoten jarraitzen duelarik. Heziberri 2020k, LOMCEren ikuspegi neoliberala barneratzeaz gain, estatu espainolak ezarritako kurrikuluaren osagarri bihurtzen da euskal kultura eta identitatea, ez baititu hartzen benetan oinarritzat. Bestela esanda, Espainiak,

aldaketak aldaketa, jarraitzen du normalizatzen eta bezatzen, edukiak eta balioak transmititzen – anomaliak ezabatzen edo barneratzen – desitxuratzen”.

Hasteko, LOMCEk material artistiko eta musikalen ezabaketa bilatzen du (Cortes, Jimenez, 2016). Hori dela eta, artea da eskolan gutxienetako lantzen den arloa. Hau, ebaluazio estandarizatu (pisa), eduki finko eta baliabide faltagatik gertatzen da eta sormenaren garapena oztopatzen du (Diz, Leiva, 2016). Gainera, arteak ikasketa esanguratsua bultzatu, sentimenduak eta emozioak landu eta ikasleen errealitatearen eta sormenaren garapena indartzen du eta horregatik, ez da komeni eskoletan lantzea (Espinosa, 2016).

Ondorioak

Jarraian azterketatik ateratako ondorioak azalduko dira. Lau ondorio nagusi atera dira, lanaren helburuak kontuan izanda: Klase dominatzaileari ez zaio komeni jendartean norbanakoen sormena sustatzea, eskolak doktrinamendurako tresnak dira, eskoletan ez da lantzen sormena eta eskoletan ezin da aldaketa esanguratsu bat eman.

Lehengo ondorioari dagokionez, burgesiari ez zaiola komeni sormena sustatzea, agerian geratu da sormena pentsamendu dibergentearekin eta kritikotasunarekin lotua dagoela. Azkenean, klase dominatzaileak bilatzen duena, norbanakoak ez zalantzan jartzea jendartea eta gaur egungo funtzionatzeko modua egokia edo bakarra dela pentsatzea da, ideia idealistak helaraziz. Honen adibide dira askotan kalean entzun daitezkeen esaldiak jendea lanaren inguruan kexu denean: “es lo que hay”, “bizitza horrela da” eta abar luze bat. Sinestarazten dute, munduak funtzionatzeko modu bakarra duela eta ezin dela ezer egin, materialismo historiko eta dialektikoa alde batera utziz. Izan ere, materialismo historikoak erakusten digu bizitzeko beste modu batzuk existitu direla historian zehar (komunismo primitiboa, esklabutza eta feudalismoa) eta beraz, kapitalismoa ez dela jendarteak izan dezakeen modelo bakarra. Horregatik, agintariak ezin dute utzi sormena eta kritikotasuna zabaltzea, ezin dutelako utzi pertsona desberdinek sistema kapitalista zalantzan jartzea eta bizitzeko beste modu batzuk planteatzea. Hortaz, estatuak bere aparatu errepresibo eta ideologikoak erabiliko ditu, hau gerta ez dadin, horietako bat da eskola.

Honek dakarrena bigarren ondorioa planteatzea da, eskolak doktrinamendurako tresna direla. Hasteko, ikusi da eskola ezin dela ulertu haurren heziketa helburutzat duen jendarteko instituzio neutro bat bezala. Argi geratu da, historian zehar hezkuntza klase dominatzaileak bere interesetara erabili duen bezala, gaur egungo eskola ere

klase jabetunaren interesetara antolatzen dela. Eta interes hauek produkzio harremanak ezartzen dituztela azken instantzian, honekin eskolak jasan duen bilakaeran eraginez. Eskolak sistema kapitalistan helburu eta forma ezberdinak izan ditu honen garapenaren arabera, beti ere doktrinamendurako tresna bezala erabiliz. Gaur egungo egoeran, bi funtzio nagusi esleitzen zaizkio. Alde batetik, etorkizuneko langileak prestatzea, hau da, pertsonak prestakuntza maila minimo bat edukitzea bakoitzak etorkizunean erantzungo dion lanari ahalik eta zuku gehien ateratzeko. Beste alde batetik, sistemak bere horretan jarraitzeko burgesiak behar dituen subjektu pasiboak sortzea, hau da, sistema onartuko duten eta zalantzan jarriko ez duten subjektuak sortzea.

Azken funtzio honekin eta lehenengo ondorioarekin dago lotua hirugarren ondorio, eskoletan ez da sormena lantzen. Lehenengo ondorioan ikusi bezala, klase dominatzaileari ez zaio komeni jendartean norbanakoen sormena sustatzea eta horretarako bere tresnak erabiltzen ditu hau oztopatzeko, eskola bezala. Beraz, eskoletan ez du bultzatuko hurrek sormena garatzea. Horretarako mekanismo desberdinak erabiltzen dituela ikusi da. Batetik, eskolaren antolaketak ez du laguntzen sormenaren ezaugarriak garatzera, oso hierarkikoa baita dena eta autoritate handia dago aztertu bezala. Honek haurren autonomia garatzea eta gauzak beste modu batera izan daitezkeela pentsatzea oztopatzen du. Bestetik, nahiz eta proposatzen diren curriculumetan eta zabaltzen den iritzian sormena bultzatzen dela esaten den, ezartzen dituzten neurri eta metodoek desberdina adierazten dute, besteak beste, azterketa estandarizatuak, ikasturte bakoitzerako eduki kopuru handiegia, ratio handiegiak, notek hartzen duten garrantzia, baliabide gutxi eta abar. Honek ekartzen duena, irakasleak bere planteamenduak aurrera eramateko denborarik ez izatea da. Beraz, nahiz eta irakasleek sormena garatzen lagunduko luketen metodologiak egin nahi izan ezin dute, ikasle bakoitzarentzako egokitzen den ikasketa prozesu bat ezin dute egin, ikasle bakoitzari gai bakoitzarekin pentsatzeko behar duen denbora ezin diote eskaini, ezin dituzte ikasleentzako egokienak iruditzen zaizkien edukiak eman, ez dute aukerarik metodologia egokienak aurrera eramateko eta abar.

Honekin azken ondorioa iristen gara, eskoletan ezin da aldaketa esanguratsu bat eman. Aurreko ondorioan aztertu dugu, irakasleak ezin duela benetako aldaketa esanguratsu bat aurrera eraman, baliabide oso gutxi dituelako, egoerak ez dielako laguntzen eta oso mugatu dagoelako goitik etortzen diren neurriekin. Izan ere, ikusita eskolaren kontrola burgesiak duela ez du utziko bere boterea zalantzan jar dezakeen ezer sortzen. Horregatik, nahiz eta askotan aldaketak eman diren klase desjabetuaren mesedetara ez dira inoiz izan eskolaren kontrola zalantzan jartzeko aukera uzteko

modukoak. Bestalde, eskola desberdinak egonda ere, denak estatuaren oniritzia behar dute eta neurri konkretu batzuk bete behar dituzte homologatuak izateko. Beraz, eskolaren gaineko kontrola klase dominatzaileak duen bitartean, ez da aldaketa esanguratsurik emango eta ez da izango ikasleen beharrei erantzungo dien tresna bat.

Mugak eta hobekuntza proposamenak

Lana egiterako orduan izan ditudan mugei dagokionez, asko kostatu zait sormenaren gaineko marko teorikoa osatzea. Izan ere, orain arte ez dut inoiz landu sormena esplizituki eta haren inguruan idatzi duten autoreak ere ez nituen ezagutzen. Hortaz, oso zaila egin zait iturri egokiak zein ziren aukeratzea. Gainera, honen gaineko informazioa aurkitutakoan ere, marko teorikoan azaldu bezala teoria, ildo eta ikuspuntu desberdinak eta ugari aurkitu ditut, irakurri eta erabili ditudan artikulu eta liburuetan ez zen definizio konkretu bat ematen, honen gaineko lanaren zailtasuna handituz. Bestalde, sormenaren lanketaren oinarria psikologiak hartu du historian zehar eta ez da asko landu dudana bai. Hau guztiagatik, baliteke marko teorikoak mugak izatea.

Bestalde, nola aurten ez ditudan praktikak egin, ezin izan dut lehenengo pertsonan aztertu ea ikasgeletan sormenaren lanketa emateko aukerak aurkitzen diren.

Hezkuntzaren teoriari dagokionez, pedagogian eta hezkuntzan adituak diren pertsona asko aurki ditzakegu gaur egungo eskolaren kritika egoki bat egiten dutena, baina ez dut astirik izan hauen guztien gainean irakurtzeko beraz, bibliografiari dagokionez aberatsagoa izan zitekeela pentsatzen dut, hala ere, oso zaila izango zen pedagogo guzti hauen ikuspuntua barnebiltzea. Horregatik, batzuetan bakarrik zentratu naiz, batez ere dialnetetik hartutakoak.

Hobekuntza proposamenei dagokienez, bi aspektu nagusi hobetuko nituzke. Batetik, orain esandakoa, eskolaren gaineko kritikan autore erreferentzial gehiago sartzea. Bestetik, pentsatzen dut kapitalismoak plusbalio erlatiboa hobetzeko joera hartu duela azken hamarkadan batez ere. Honek suposatzen duena da, garapen teknikoaren hobekuntza etengabea eta horretarako geroz eta makina garatuagoak behar dituela burgesiak ahalik eta plusbalio erlatibo handiena ateratzeko. Hortaz, hein batean komeni zaio pertsona batzuk sormena garatzea makina berri hauek diseinatze aldera, hala ere, beti burgesiaren mesedetara joango den pentsamenduari. Horregatik, aztertu beharreko puntu bat iruditzen zait egoera honetan sormenaren sustapenak hartzen duen papera.

Bibliografía

- Acaso, M. (2013). *rEDUvolution hacer la revolución en la educación*. Barcelona: Paidós.
- Alonso, I. (1980). *Educación y sociedad. Las sociologías de la educación*. Madrid: centro de investigaciones sociológicas.
- Althusser, L. (2014). *Ideología y aparatos ideológicos del estado*. Barcelona: Anthropos.
- Álvarez, E (2010). *Creatividad y pensamiento divergente*.
<https://www.interac.es/index.php/documentacion?download=3:creatividad-y-pensamiento-divergente> tik berreskuratua.
- Amenabarro, E. (2016). *Hezkuntza sistema estatu espainiarrean. Hezkuntzaren Teoria eta Historia. Hezkuntza eta kirol fakultatea. Material ez publikatua*.
- Apple, M. (1986). *Ideología y curriculum*. Madrid: Akal.
- Bowles, S. & Gintis, H. (1972). *La meritocracia y el coeficiente de inteligencia: una nueva falacia del capitalismo*. Barcelona: Anagrama.
- Cortes, P. & Jiménez, A. (2016). *Identidades resilientes, identidades creativas. ¿Acaso la botella es siempre verde?*. En P. Cortes, M.J. Márquez (eds). *Creatividad, comunicación y educación. Más allá de las fronteras del saber establecido*. (pp. 35-49).Málaga: Uma.
- Csikszentmihalyi, M (1998). *Creatividad el flujo y la psicología del descubrimiento y la invención*. Barcelona: Paidós.
- De Melo, A. & Yeilich, C. (2016). *La creatividad desde una mirada crítica. Hacia un proyecto educativo emancipatorio*. En P. Cortes, M.J. Márquez (eds). *Creatividad, comunicación y educación. Más allá de las fronteras del saber establecido*. (pp. 51-63).Málaga: Uma.
- Diz, J. & Leiva, J.J.(2016). *Explorando nuevos caminos pedagógicos: de la interculturalidad y la creatividad al activismo en educación*. En P. Cortes, M.J. Márquez (eds). *Creatividad, comunicación y educación. Más allá de las fronteras del saber establecido*. (pp. 67-82).Málaga: Uma.
- Durán, T. Esteban, A. Magallón, R.C. Martire, A. Rebouças, B. Weixlberger, C. (2013). *La creatividad*. Ruta, 5.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4847189> tik berreskuratua.
- Elhuyar (1993). *Hiztegi entziklopedikoa*. Usurbil: Elhuyar.
- Engels, F. & Marx, K. (1975). *Cuestiones de arte y literatura*. Barcelona: Península.
- Engels, F. & Marx, K. (2014). *Ideología Alemana*. Madrid: Akal.
- Engels, F (2014). *Anti-düring*. Madrid: Fundación Federico Engels.

- Engels, F. (2017). *El origen de la familia, la propiedad privada y el estado*. Madrid: Akal.
- Espinosa, I. J. (2016). Pensamiento creativo y currículo escolar. Construcción narrativa del currículo en espacios interculturales. En P. Cortes, M.J. Márquez (eds). *Creatividad, comunicación y educación. Más allá de las fronteras del saber establecido*. (pp. 7-11). Málaga: Uma.
- Etxarte, A. (2018). *Hezkuntza aldatzeko, akordio zabalak behar dira, eta zarata gutxiago*. Berria. 2018ko maiatzaren 20an https://www.berria.eus/paperekoa/1952/010/001/2018-02-04/hezkuntza_aldatzeko_akordio_zabalak_behar_dira_eta_zarata_gutxiago.htm tik berreskuratua.
- Ferrándiz, C., López, O. & Prieto, M. D. (2003). La creatividad en el contexto escolar. Estrategias para favorecerla. Madrid: Península.
- Freire, P. (2017). *Pedagogía del oprimido*. Barcelona: Tinta invisible.
- García, M. (2016). ¿Quieres cambiar la sociedad? Solo tenemos que crear un buen relato. En P. Cortes, M.J. Márquez (eds). *Creatividad, comunicación y educación. Más allá de las fronteras del saber establecido*. (pp. 21-34). Málaga: Uma.
- Gite ipes (2017). *Azterketa marxista apunteak*. Bilbo: Gite Ipes.
- Gómez, T. G. (2008). *Francesco Tonucci La maquinaria escolar*. Madrid: centro de documentación crítica.
- Gramsci, A. (1976). *La alternativa pedagógica*. Barcelona: Nova terra.
- Harnecker, M. (1979). *Explotados y explotadores*. Madrid: Akal.
- Heinrich, M. (2018). *Crítica de la economía política. Una introducción a el capital de Karl Marx*. Madrid: Guillermo escolar.
- Hirtt, N. (2013). La Escuela y el Capital: 200 años de conmoviones y contradicciones. *Appel pour une école démocratique*. <http://www.skolo.org/es/2013/08/14/la-escuela-y-el-capital-200-anos-de-conmoviones-y-contradicciones/> tik berreskuratua.
- Lubart, T.I. & Sternberg, R.J. (1997). La creatividad en una cultura conformista. Un desafío de las masas. Barcelona: Paidós.
- Mandel, E. (2013). *Introducción al marxismo*. Biblioteca virtual: Omegalfa.
- Martinez, S (2016). Prefacio reflexiones que invitan a (re)pensarnos. En P. Cortes, M.J. Márquez (eds). *Creatividad, comunicación y educación. Más allá de las fronteras del saber establecido*. (pp. 7-11). Málaga: Uma.

- Medina, M.A. (2005) Creatividad en la ciencia. *Paradigma*, 1, 16-19.
<https://riuma.uma.es/xmlui/bitstream/handle/10630/945/Medina%20Torres%2C%20M.A.pdf?sequence=1&isAllowed=y> tik berreskuratua.
- Menchen, F. (2012). Atrévete a ser creativo: pasos para ser creativos. *Revista Iberoamericana sobre calidad, eficacia y cambio en educación*, 2, 249-263.
- Monreal, C. (2000). Que es la creatividad. Madrid: Biblioteca nueva.
- Ormazabal, A. (2016). *Hezkuntzaren soziologiari sarrera*. Hezkuntzaren Soziologia. Hezkuntza eta kirol fakultatea. Material ez publikatua.
- Ormazabal, A. (2016). *Sozializazioa*. Hezkuntzaren Soziologia. Hezkuntza eta kirol fakultatea. Material ez publikatua.
- Parker, I. (2007). La deconstrucción de la psicopatología en la investigación-acción. *Archipiélago. Cuadernos de la crítica de la cultura*, 76, 65-74
- Politzer, G (2018). *Principios elementales de la filosofía*. Barcelona: Plutón.
- Ponce, A. (2005). *Educación y lucha de clases*. Madrid: Akal.
- Robinson, K., Aronica, L., & Garmilla, M. G. (2009). *El elemento*. Bogotá: Grijalbo.
- Rodríguez, A. (2001). Creatividad y sociedad. Barcelona: Octaedro.
- Saenz del Castillo, A. (2016). *Berdintasuna, ezberdintasuna eta bereizketa*. Gizarte Zientziak eta beren Didaktika I. Hezkuntza eta kirol fakultatea. Material ez publikatua.
- Saenz del Castillo, A. (2016). *Demokraziaren bilakaera*. Gizarte Zientziak eta beren Didaktika I. Hezkuntza eta kirol fakultatea. Material ez publikatua.
- Tirado, A. & Romero, R. (2016). *La clase obrera no va al paraíso: crónica de una desaparición forzada*. Madrid: Akal.
- Uranga, M (2017). *Eoskola heziketa hipermoderno*. Nafarroa: Pamiela.
- Valero, J.A. (2019). La creatividad en el contexto educativo: adiestrando capacidades. *Tecnología, Ciencia y Educación*, 13, 150-171.
- Vecina, M.L. (2006). Creatividad. *Papeles del psicólogo*, 27, 31-39.
<http://www.papelesdelpsicologo.es/resumen?pii=1282> tik berreskuratua.

Eranskinak

1. Eranskina: Estatu burgesaren azalpena

(Heinrich, 2018)

Kapitalismoko aurkitzen den estatua, lau oinarrietan banatzen da. Lehenengo eta behin, eskubide estatua (estado de derecho), bereziki jabetza pribatua babestean datza. Estatua pertsonen aurrean instantzia neutral bat bezala ikusten da, eta neutraltasun hau elkarbanatzea ez da itxura simple bat. Honen ondorioz bermatzen ditu estatuak dominazio eta esplotazio harreman kapitalisten fundamentuak, jabetza pribatuaren defentsa. Izatez guztientzako legeak berdinak dira, baina langileriak bere lan indarra bakarrik dauka jabetza pribatu bezala beraz, esplotazioa betikotzen du.

Bigarrenik, estatu kapitalista orokor ideala (estado capitalista global ideal), honen helburua kapitalaren akumulazio kondizio materialak bermatzea da, burges indibidualak bermatu ezin ditzaketenak baldintza desberdinengatik. Honen lana izango zen azpiegitura egoki bat sortzea, formazio eta ikerketa gaitasunak indartzea, balore egonkorak dituen diru bat kontrolatzea (banku zentrala) eta abar. Azken finean, kapitalistak banaka egin ezin ditzaketen gauzak bermatzea.

Hirugarrenik, estatu soziala (estado social), lotura handia du bigarrenarekin. Izan ere, aurreko puntuan aipatutako interes orokorrak, ez dira beti burges indibidualen bat bateko interesen berdinak. Burgesek beraien aberastasunaren iturria ez suntsitzeko (lan baldintza oso txarrek jarritz, plusbalio maximoa ateratzeko) legegintza estatal bat dago, hau da, arauak ezartzen dira esplotazio hau arautzeko (lan baldintzak). Honekin, ez da lortzen bakarrik lan indarraren suntsiketa saihestea, bere erreprodukzioa ere bermatzen da. Zentzu honetan, burges indibidualaren bat bateko interesa (balarizazio maximoa), interes orokorraren aurkakoa da batzuetan. Hau guztiagatik, batzuetan estatu soziala garaipen bat bezala ikusten da hauen lan baldintzengatik borrokatzen duelako, baina berez kapitalismoa babesteko modu bat da, soldatapeko langileen existentzia bermatzen duena. Politika estatalak ez du bakarrik burgesen arteko kontsentsu bat bilatu behar baizik eta azpiko klaseen zilegitasuna eta kontsentsua behar du (ez honen kontra altxatzeko). Horregatik, kontsideratzen dira batzuetan langile klaseari kontzesio batzuk ematea, beti ere ez badu asko kaltetzen kapitalaren akumulazioa.

Azkenik, demokrazia estatua (estado de democracia), azkeneko gaiarekin lotua doana. Bertan, elekzio jeneralekin herriari uzten diote aukeratzen, horrela kritikak jasoz gero, erabiltzen duten argudioa gehiengoak aukeratu dituela da. Honekin, jendeak

pentzatzen du bere errepresentazioa duela estatuan eta aldatu daitekeela. Gainera, kritikak sisteman kontra joan ordez, partidu konkretuen kontra jutea lortzen dute, pentsaraziz sistema ez dagoela gaizki, baizik agintari konkretu batzuk egin dutela lan txarra.

2. eranskina: irakasleen erantzunak

Oharra (zerbait gehitu nahi bada)

42 erantzun

IKASLE KOPURU OSO HANDIAK DIRA ETA HORI OZTOPO BAT IKARAGARRIA DA ,

Aberasgarria izan daiteke.

Beti ez dugu denbora nahiko izaten gertuko zuzenketa egiteko, geletako aniztasuna eta ikasle kopuru handiagaitik.

Onartzen eta txalotzen da, hori da gure metodologiaren oinarrietako bat.

Denbora, zuk aipatu bezala, baldintzazaile handia da...

Galdera bitartez bideratuko nituzke irakasleen banakako lanak eta denbora gehiago eskaini bakoitzari. Nahiz eta bakoitza hartzen dudan kontutan askotan denbora ez izanagatik azalpen orokor batera jo behar izaten dut eta azkenen beraik lortu beharrean ariketa nola egiten den neuk bukatzen dut azaltzen (talde handian).

Oharra (zerbait gehitu nahi bada)

106 erantzun

Haur Hezkuntzan ez dago ez ondo ez gaizki egitea bakoitza bere modura egiten du eta dena onartzen da.

Dugun denbora unitate didaktiko bakoitzerako laburregia da Ikasle guztiengan ikaskuntza esanguratsuak bermatzeko. Azken finean, denborak edukiak modu ezberdinetan lantzeko aukera mugatzen du.

Oharra (zerbait gehitu nahi bada)

78 erantzun

Denbora faltagatik batzuetan ezinezkoa egiten da plan espezifikoak egitea ikasle bakoitzarentzat.

Oharra (zerbait gehitu nahi bada)

50 erantzun

Eegunero jolastea egoki ikusten dut, baina denbora aldetik oso justu gabiltza beti

Jolas gehiago topatu, edukiak lantzeko. Horrela, seguru hobeto barneratuko dituztela edukiak.

Batzutan gehiagotan, arlo ezberdinetan jokua digitalak ere erabiltzen ditugulako

Denborak asko mugatzen du... alor askotan...

Batzuetan gutxiagotan

Denbora gehiago eskainiko nioke manipulatzeari eta ez paperean egiteari.

Ikastetxe guztiak dira desberdinak eta gehienetan alde aurretik ezarritako metodoa jarraitu behar izaten dugu: liburu, proiektu, ... dena delakoa. Askotan eskuak lotuta dauzkagu.

-Ze metodologia eta Zergatik?

129 erantzun

Zirkulazio librea

Proiektu bidezko ikaskuntza. Ordu-tegi mugatua, baliabide falta (IKTak behe zikloan), beste irakasleekin koordinatzeko denbora falta...

Ikasgeletan aniztasun handiak daude eta askotan arrapaladan ibili behar izaten da.

Denbora faltan ibiltzen gara beti ere.

Taldeko batzuk manipulazioa behar izaten dute oraindik eta horretarako denbora gehiago beharko nuke

Mantsoago azalduko nieke, beraiek adibideak ekarri,....

Zentroen arabera.

Liburu bat jarraitzeak asko mugatzen du.

Oharra (zerbait gehitu nahi bada)

45 erantzun

Eduki batzuetan erabakia ez dago ikasleen esku

Aurretik aipatu bezala, testu edo gidaliburu batek guztiz mugatzen zaitu eta gainera jorratzen diren gaiak orokorrean, zaharkituta daude.

Oharra (zerbait gehitu nahi bada)

98 erantzun

GURASOEK GARRANTZI HANDIA EMATEN DIETE ETA HEZKUNTZAK BERAK, IKASLE DESBERDINEN EZAUGARRI DESBERDINAK EZ DITU KONTUTAN IZATEN. KURTSOAREN ZEHAR IKASLE DESBERDINEK BERE NEURRIKO PROGRAMAZIOA IZATEN DUTE, BAINA AZKENEAN HEZKUNTZA SISTEMAK DENEK NEURGAILU BERDINEKIN SAILKATZEKO ESKATZEN DIGU. INKOHERENTZIA IZUGARRIA.

Tamalez bai. Familiek horrela ohituta daude eta administrazioak ez du beste modurik onartzen. Adibidez, kompetentziak hobeto baloratu.

Notak beti du garrantzia, baina progresioak eta aurrerapauosak hartu behar dira kontuan. Bakoitzak egiten duen saiakera eta zenbat egin duen aurrera.

Notak garrantzia du, lana nola egin den, zenbat, baina esfortzua eta hausnarketak ere, beraz auto-zuzenketak ere nota igo dezake ongi iritxi bada akatsaren zergaitiara.

Hezkuntza sistemak eta jendarteak ezartzen diote garrantzi hori. Tamalez, gaur egungo umeak eskolara joaten direnean ikasteko asega galdu eta notetan eta ikasgaiak gaitzitzean zentratzen dira (gu ere, irakasleok, horrela lan egitera "behartuta" gaudelako).

Oharra (zerbait gehitu nahi bada)

45 erantzun

Presaka bizi den gizarte batean irakaskuntza ere presaka bizi da. Gehiago esango nuke gizartearen zati handi batek uste du txikitatik "ohitu" behar dela erritmo horretara eta ez du ondo ikusten patsadaz aurrera eramandako hezkuntza. Metodologia desberdinak egon badaude baina orokorrean kompetibitateak eta elitismoak pisu gehiago dute ikasleei pentsatzeko eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen duten metodologiekin baino

Oharra (zerbait gehitu nahi bada)

14 erantzun

doana) beraiek esperimenta dezaten.

Gure lana haurra behatzea eta bidelagun izatea izan beharko luke, hor azalduko dira bere gaitasunak..

Gela txikia denean, txokoak egitea ezinezkoa da.

Sormena pertsonak berarekin dakar baina hezkuntzak (orain arte planteatu izan den eran) oztopatu besterik ez du egiten sormen horren garapenean.

Oharra (zerbait gehitu nahi bada)

34 erantzun

Uste dut sormena dexente mozten dugula sistema dagoen bezala.


Ahal denean. Beharko litzakenetan baino gutxiagotan.

Ez da eskolak bultzazten duen gaitasun bat LHn. Nik 6. mailakoekin ibili naiz eta ikusten da ikasle batzuen garapena arlo horretan ez dakigula bideratzen.

3. Eranskina: irakasleen erantzunen datuak


Klasean ariketak zuzentzerakoan orokorrean nola egiten duzu?

212 erantzun




- Baliabide edo denbora gehiago (hau da, eduki gutxiago) edukiko bazenu beste modu batean egingo zenukeen?

213 erantzun




Jokoak egiten dira klaseetan?

208 erantzun




-Baliabide edo denbora gehiago (hau da, eduki gutxiago) edukiko bazenu beste modu batean egingo zenukeen?

195 erantzun




Denbora nahiko duzu eskatzen zaizuna zuk nahi duzun eran egiteko (klaseko metodologia/edukiak erlazioarekin lotua)

211 erantzun



Ikasleei pentsatzeko behar duten denbora uzten zaie beti?

213 erantzun



4. Eranskina: Francesco Tonucciren marrazkiak

